

**2022KO AZAROAREN 29AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko azaroaren 29an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2022-09-27ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

*2022-10-18ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

*2022-10-25ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO URRIAREN 20TIK
2022KO AZAROAREN 22RA (2022/278 - 2022/314).**

Alkatetzak 2022ko urriaren 20tik 2022ko azaroaren 22ra bitartean (2022/278-2022/314) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- GFA KUDEAKETA GOMENDIOA ALKATE DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak 20/2021 egonkortze prozesuen legearen baitan GFAk kudeaketa gomendioa sintzeko aukera aztertu duela udal gobernuak eta Irurak dituen baliabideak aztertuta aukera onena iruditu dela.

Halaber, adostasuna erabatekoa izan dadin eta Udalbatzak bere eskumena ahalbideratu dezan Alkate dekretua plenoan berrestea proposatzen du.

Esp.zk.: 2022IDAZ0060

303/2022 ALKATE DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. s)atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

LEHENENGO.- Enplegu publikoan behin- behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak egonkortze-prozesu batzuk egitera behartzen ditu administrazio publiko guztiak, baita Gipuzkoako toki-erakundeak ere, dagoeneko argitaratuta dituzten lan-eskaintza publikoen arabera eta lege horretan jasotako aurreikuspenen babesean.

BIGARREN.- Toki Administrazioaren eremuan prozesu horien garapena errazteko, 20/2021 Legearen lehen xedapen gehigarriak berariaz aurreikusten du toki-erakundeek beren kudeaketa materiala probintzietako diputazioen esku uzteko aukera; edonola ere, mandatu horretatik kanpo geratzen dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluan aurreikusitako biztanle-kopuru handiko udalerriak.

HIRUGARREN.- 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako merezimendu-lehiaketako sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jarduera egitea.

LAUGARREN.- Bere eduki material eta teknikoagatik emango zaion jarduera hori egiteko ardua; eta horrek ez du esan nahi toki-erakundearen titulartasuna transferituko denik, ezta haren eskumenak baliatuko direnik ere. Beraz, toki-erakundeak gomendioaren xede den jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo ebazpen juridiko guztiak emango ditu.

BOSGARREN.- Gainera, egonkortze-prozesuen kudeaketa errazteko eta, bereziki, gomendiopeko jarduera ahalik eta eraginkorrena izango dela bermatzeko, IZFE SAK, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuaren enkarguz, departamentu horrek erabiltzen duen "LANGILEEN HAUTAKETA" aplikazioa egokitu du toki-erakundearen esku uzteko. Ondorioz, toki-erakundeak nahitaez erabili beharko du aplikazio hori kudeaketa-gomendio honen barruan.

SEIGARREN.- Idazkariak egindako aldeko txostena.

Horren aurrean eta indarrean dagoen legerian erabakitakoaren arabera,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Ogasun eta pertsonal batzordeari informazioa helaraztea, eta hurrengo Batzararldian hitzarmenaren adostaturik Dekretua azaldu Udaltzat berretsi dezan.

BIGARRENA.- Gipuzkoako aldiakari ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabakia jakinaraztea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio bideari.
Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso
Alkateak
Arrizabalaga Gainza

Elektronikoki sinatua

Nire aurrean
Irantzu

Idazkariak
Elektronikoki sinatua

ERANSKINA

HITZARMENA

IRURAKO TOKI-ERAKUNDEAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA FORMALIZATZEKO, ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.

Esp.zk.: 2022IDAZ0060

ELKARTU DIRA

Donostian eta Iruran, 2022ko azaroaren XXan.

Alde batetik,

Eider Mendoza Larrañaga andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko foru diputatua, funtzio publikoaren eta Toki Administrazioarekiko harremanen arloetan eskumenduna den departamentuko titularrak izateagatik hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua Diputatuen Kontseiluaren 2022ko azaroaren 8ko Erabakiaren bidez.

Bestetik,

Gorka Murua Macuso jauna, IRURAKO toki-erakundeko alkate-lehendakaria, haren izenean eta ordezkartuz, 2022/XXX Alkate dekretuaren arabera.

AZALTZEN DUTE

LEHENENGO.- Enplegu publikoan behin- behinekotasuna murrizteko premia buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak egonkortze-prozesu batzuk egitera behartzen ditu administrazio publiko guztiak, baita Gipuzkoako toki-erakundeak ere, dagoeneko argitaratuta dituzten lan-eskaintza publikoen arabera eta lege horretan jasotako aurreikuspenen babesean.

BIGARREN.- Toki Administrazioaren eremuan prozesu horien garapena errazteko, 20/2021 Legearen

lehen xedapen gehigarriak berariaz aurreikusten du toki-erakundeek beren kudeaketa materiala probintzietako diputazioen esku uzteko aukera; edonola ere, mandatu horretatik kanpo geratzen dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluan aurreikusitako biztanle-kopuru handiko udalerriak.

HIRUGARREN.- Azaldutako guztiagatik, 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako merezimendu-lehiaketako sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez, bi alderdiek erabaki dute Gipuzkoako Foru Aldundiak Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jarduera egitea.

LAUGARREN.- Bere eduki material eta teknikoagatik ematen zaio jarduera hori egiteko ardura; eta horrek ez du esan nahi toki-erakundearen titulartasuna transferituko denik, ezta haren eskumenak baliatuko direnik ere. Beraz, toki-erakundeak gomendioaren xede den jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo ebazpen juridiko guztiak emango ditu.

BOSGARREN.- Gainera, egonkortze-prozesuen kudeaketa errazteko eta, bereziki, gomendiopeko jarduera ahalik eta eraginkorrena izango dela bermatzeko, IZFE SAK, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuaren enkarguz, departamentu horrek erabiltzen duen "LANGILEEN HAUTAKETA" aplikazioa egokitu du toki-erakundearen esku uzteko. Ondorioz, toki-erakundeak nahitaez erabili beharko du aplikazio hori kudeaketa-gomendio honen barruan.

SEIGARREN.- Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluekin bat etorritik, bi alderdiek kudeaketa-gomendioari buruzko hitzarmen hau sinatzen dute, eta klausula hauek izango ditu:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA ETA GOMENDIOAREN IRISMENA.

Hitzarmen honen xedea da Irurako Udalak (aurrerantzean, toki-erakundeak) Gipuzkoako Foru Aldundiari egiten dion kudeaketa-gomendioa formalizatzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako lehiaketa-sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez. Kudeaketa-gomendioan sartzen dira 2022ko maiatzaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (87. zk.) argitaratutako enplegu publikoaren eskaintzaren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez hornitu beharreko plaza guztiak.

Zehazki, Foru Aldundiaren esku uzten da lehiaketan Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jarduera materiala eta teknikoa egitea, behin toki-erakundeak autobaremazio handiena duten izangai onartuek alegatutako merezimenduen egiaztagiriak bidali ondoren.

Gomendio honek aipatutako prozesuek eskatzen dituzten jarduera tekniko edo materialei eragiten die bakarrik.

BIGARRENA.- ESKUMENEN TITULARTASUNA.

Hitzarmen honi jarraiki egindako gomendioak ez du eskumenaren titulartasuna aldatuko, eta ez du eraginik izango gomendiopeko jarduera materiala gauzatu aurretik edo ondoren hartu beharreko

erabaki juridikoen eremuan.

Adibide gisa, toki-erakundeari dagokio:

- Hitzarmen honetan aipatzen diren egonkortze-prozesuen deialdia eta oinarriak onestea, eta al-dizkari ofizialetan argitaratzea.
- Egindako autobaremazioaren arabera ordenatutako onartuen eta baztertuen zerrendak onestea eta argitaratzea.
- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutakoak, izendatzea.
- Hautatutako pertsonak kontratatzea edo izendatzea, Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritz.

HIRUGARRENA.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea proposatuko dio toki-erakundeko organo eskumendunari; eta epaimahai horrek behar bezala funtzionatzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

Bere osarari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio epaimahaiari.

Epaimahai horren eginkizun nagusiak hauek izango dira:

- Deialdiaren oinarrien arabera, autobaremazio handiena duten onartutako izangaien merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa baloratzea, toki-erakundeak bidali ondoren.

Egokitzat jotzen den kasuetan, eta deitutako plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatze aldera, izangaiek alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak toki-erakundeko teknikarien laguntza eskatu ahal izango du beharrezkoak diren gai teknikoetarako.

Era berean, dagozkion egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta, horretarako, behar diren zuzenketak egiteko eskatu ahal izango du.

- Baloratutako pertsonen zerrenda onestea eta argitaratzeko agintzea; eta puntuazio handiena lortu dutenak funtzionario bihurtzea edo kontratatzea proposatzea.
- Aurkeztutako erreklamazioak ebaztea eta jarritako errekurtsoen inguruko txostena egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, halaber, kudeaketa-gomendioa modu eraginkorrean egiteko konpromisoa hartzen du, baliabide publikoak optimizatuz.

LAUGARRENA.- TOKI-ERAKUNDEAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK.

Kudeaketa-gomendio honen esparruan, eta hori behar bezala garatzeko, toki-erakundeak:

- Gomendiopeko egonkortze-prozesuak kudeatzeko “LANGILEEN HAUTAKETA” aplikazioa erabiliko du; eta, bereziki, autobaremazio formularioa.
- Baloratu beharreko merezimenduak dituzten pertsonen zerrenda egingo du, autobaremazioaren arabera ordenatuta; alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa eskatuko die eta ondoren zerrenda nahiz dokumentazioa Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko dizkio.
- Epaimahaiari eskatzen duen laguntza teknikoa emango dio; eta behar duen informazio guztia ere bai, bereziki, lanpostuen ezaugarriei eta eginkizunei buruzkoa.
- Epaimahaiak eskatutako zuzenketak eta agiriak eskatuko dizkie izangaiei, eta epaimahaiari bidaliko dizkio.
- Aurkeztutako erreklamazioak jaso eta Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko dizkio; eta hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten administrazio-egintzen eta ebazpenen jakinarazpenak eta argitalpenak egingo ditu, epaimahaiak berak emandakoenak barne.
- Erreferentziako pertsona bat edo solaskide bat izendatuko du, Epaimahai Kalifikatzailearekin behar bezala koordinatzeko.

BOSGARRENA.- legezkoA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA.

Hitzarmen honen xedeak ez dakar betebeharrak, konpromiso nahiz konpentsazio ekonomikorik sinatzaileen artean.

SEIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, toki-erakundearen bi ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko beste bi ordezkariak osatua. Lehendakaria Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkarietako bat izango da.

Bere eginkizunen artean daude hitzarmena ondo aplikatzen dela ziurtatzea, aplikazio horretan sor daitezkeen zalantzak, desadostasunak eta gorabeherak konpontzea, bertan jasota ez dauden gaiak ebatzea eta betetze-maila, gauzatze-maila eta balizko hobekuntzak ebaluatzea, baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikulutik eratorritako guztiak ere.

Batzordea behar beste aldiz bilduko da, alderdietako edozeinek eskatuta.

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Lehendakariari dagokio berdinketak bere botoarekin ebatzea.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2024ko abenduaren 31 arteko iraupena izango du.

Epe horretan ez badira burutu kudeaketa-gomendioko jarduketak guztiak, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute epea luzatzea, 40/2015 Legearen 49.2 artikuluan aurreikusi mugarekin.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmena aldatzeko, alderdiek aho batez adostu beharko dute.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA.

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiak emateagatik.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea bere luzapena erabaki gabe.
- Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.
- Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.
- Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Ez da alde batetik bestera kalte-ordainik emango ez-betetzeagatik.

HAMARGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA.

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiak honako hauek dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

- Egin beharreko datu pertsonalen tratamenduaren deskribapena: rol eta betebeharrak juridikoak.

Rolak: 40/2015 Legeak 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia izango da kudeaketa-gomendioa gauzatzean eskura ditzakeen datu pertsonalen tratamenduaren eragilea. Bestalde, toki-erakunde sinatzaileek tratamenduaren arduradun-rola izango dute beren langileen datuen tratamenduari dagokienez eta beren eskumenen esparruan.

DBEOren 28. artikulua betez, datu babesaren eranskinean aldean arteko arduradun-eragile harramena arautzen da.

HAMAIKAGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek ez du alderdien arteko inolako kontratu-harremanik ekarriko; eta administrazio-izaera izango du, 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

Horrekin guztiarekin bat datozela egiaztatzeko, bi aldeek elektronikoki sinatzen dute hitzarmen hau, dokumentu hau formalizatzeke datatzat azken sinatzailearen data hartzen delarik.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean / Por la Diputación Foral de Gipuzkoa

ERANSKINA – DATUEN BABESA

I.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (aurrerantzean DBEO), 28. artikuluan, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, 33. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Datu pertsonalen tratamendua eragiten duen kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmen hau indarrean hasten denetik:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia **tratamendu-eragilea** izango da, eta datu pertsonalak eskuratu eta/edo haien tratamendua egin ahal izango du.
- Hitzarmena sinatzen duen toki-erakundea izango da datuen **tratamenduaren arduraduna**.

Araudian ezarri denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiak, tratamenduaren eragile gisa, toki-erakunde sinatzailearen aginduak bete beharko ditu, bai eta neurri hauek ere:

II.- Datu pertsonalen tratamendua:

Hauek dagozkio **tratamenduaren arduradunari**:

- a) Baimena ematea «**Datu pertsonalen tratamendua**» eranskinean zehazten diren datu pertsonalen tratamenduaren arloko jarduerak egiteko.
- b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta ondoren ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.
- c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketarako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.
- d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.

“Datu pertsonalen tratamendua” eranskinak alderdi hauek zehazten ditu: babestu behar diren datu pertsonalak, egin behar den datuen tratamendua eta bere xedea, eta tratamendu-eragileak inplementatu behar dituen neurriak. Horrek datuak “Datu pertsonalen tratamendua” eranskinean jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiliko balitu, komunikatu egingo balitu edo kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenean ezarrita dauden estipulazioak edo indarreko araudia bete gabe erabiliko balitu, tratamenduaren arduraduntzat joko litzateke, eta egindako arau-hausteen erantzule izango litzateke.

III.- Tratamendu-eragileentzako estipulazioak

DBEOren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, tratamendu-eragilearen betebeharra izango da betebeharrak hauek betetzea eta bermatzea, “Datu pertsonalen tratamendua” eranskinean ezarri denarekin osatzen direnak:

- a) Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren gauzatzean aplikatzekoak diren jarraibideen agiriekin bat edo, hala denean, tratamenduaren arduradunak kasuan-kasuan idatziz emandako jarraibideekin bat

tratatzea datu pertsonalak. Tratamendu-eragileak **10 egun balioduneko epearen barruan** jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari uste badu jarraibide horietako bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela.

b) Datu pertsonalak ez erabiltzea kudeaketa- gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren xedea ez den beste helburu baterako.

c) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideen eta edukiaren arabera tratatzea, eta erabiltzen dituen datu pertsonalen konfidentziasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu eta betetzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak ezarritako informazio- sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun- neurrien aplikazioarekin.

d) Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena gauzatzeko erabiltzen dituen datu pertsonalen erabateko konfidentziasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

Tratamendu-eragilearen menpe tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebeharrak, eta, era berean, tratamendu-eragilearen ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki bere menpe dituen pertsonak ohartaraztea sekretu-betebeharrak eta hura gordetzen jarraitu behar dutela zerbitzua bukatutakoan ere edo zerbitzuarekiko lotura galdu badute ere.

e) Datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentziasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak betetzeko (pertsona horiei behar bezala jakinaraziko dizkie neurriok). Eta tratamenduaren arduradunaren esku jartzea egiaztatzeko dokumentazio hori.

f) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonen datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestatuntza dutela bermatzea.

g) Hirugarren pertsonen ez komunikatzea (lagapenean uztea) eta zabaltzea datu pertsonalik, ezta datuak kontserbatzeko bada ere; salbuespena da horretarako tratamenduaren arduradunaren baimen espresua dagoenean.

h) Datuak Babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean.

i) Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena amaitu ondoren, kasuan-kasuan eta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean agintzen denaren arabera, konpromisoa hartzen du datu hauek **itzultzeko edo suntsitzeko***:

- Eskuratu dituen datu pertsonalak.
- Tratamendu-eragileak tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak.
- Datu horiek biltzen dituzten euskarriak eta agiriak, inolako kopiarik gorde gabe.

*Salbu eta legez edo Batasuneko zuzenbidearen arauz haien kontserbazioa baimentzen edo eskatzen bada,

kasu horretan ez baitira suntsituko.

Tratamendu-eragileak, hala ere, datuak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren arduradunarekin duen harremanaren ondorioz erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora gutxien kontserbatuko dira, eta epe hori amaitu bezain laster suntsituko dira modu seguruan eta behin betiko.

j) “Datu pertsonalen tratamendua” eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea.

k) DBEOren 33. artikulua ezartzen duenarekin bat, berehala komunikatzea tratamenduaren arduradunari, gehienez ere 72 orduko epearen barruan, bere ardurapean dauden datu pertsonalen segurtasuna hautsi denean, hala gertatu dela jakitun bada. Era berean, jakinaraziko dio informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo huts-egite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa den edozein informazio, bai eta hitzarmena gauzatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharrenden ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa ere. Informazio xehea komunikatuko du lehenbailehen horri buruz, zehatz adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galera.

l) Pertsona fisiko batek tratamendu-eragilearen aurrean datuen babesaren arloko eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, datuak transferitzea, tratamendua mugatzea, eta banakako erabaki automatizatuak ez jasatea edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuk), tratamendu-eragileak ebatzi beharko ditu, arduradunaren kontura eta ezarritako epearen barruan, eskubide hauek baliatzeko eskaerak, enkarguaren xede diren datuei dagokienez.

m) Laguntza ematea tratamenduaren arduradunari haren betebeharrak betetzen: segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritza eskudunei eta interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

Tratamenduaren arduradunari laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, hala behar denean.

Halaber, tratamenduaren arduradunaren esku jarriko du, hark eskatuta, betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta tratamenduaren arduradunari lagunduko dio, hala badagokio, auditoreak eta ikuskapenak egiten.

n) Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluaekin bat, tratamenduaren arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinean jasoko baitira, gutxienez, artikulua horrek aipatzen dituen inguruabarrak. Horrela, bada, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

- Tratamenduaren arduradunaren izena eta harremanetarako datuak.
- Eginiko tratamenduen kategoria.
- Segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-arlokoak azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:

- Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
- Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.
- Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna egi-aztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

ñ) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea. Adibidea: betetze-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak edo auditorien emaitzak. Ebidentzia horiek tratamenduaren arduradunaren esku jarri beharko ditu eskatzen badizkio. Era berean, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena indarrean dagoen bitartean, unean-unean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak tratamenduaren arduradunaren esku jarriko ditu.

o) Informazio-eskubidea: datuak biltzen direnean tratamendu-eragilea denak informazioa eman beharko du egingo diren datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazketa eta formatua tratamenduaren arduradunarekin adostu behar dira, datuak biltzen hasi aurretik.

III. atal honetan (“Tratamendu-eragileentzako estipulazioak”) ezarritako betebeharrak eta "datu pertsonalen tratamendua" eranskinak osatzen dute datuen tratamendua arautzen duen egintza juridikoa, tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea lotzen dituena; DBEOren 28.3 artikuluan arautzen da egintza hori. Hemen adierazitako betebeharrak eta prestazioak ez dira ordainduko kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenean aurreikusitakoaz gain edo bestelako moduan, eta hitzarmen honen iraupen bera izango dute. Gainera, hitzarmena luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena amaitutakoan, sekretu- betebeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, prestazioaren gauzatzean zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

Hitzarmen honen xedea betetzeko ez da beharrezkoa tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunaren ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea eta, beraz, ez dago baimenduta "datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzeko edo tratatzeko. Hitzarmena gauzatu bitartean gorabeheraren bat gertatuz gero eta, horren ondorioz, tratamenduaren arduradunaren ardurapeko datu pertsonaletara ("datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jasota ez daudenetara) ustekabean edo gorabeheraren batengatik sartu behar bada, tratamendu- eragileak tratamenduaren arduradunari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta arretarik handienarekin eta 72 orduko epean beranduenez.

IV.- Tratamenduaren azpimandatuak:

Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenak aukera ematen badu jarduera hitzarmena sinatu duen pertsona ez den beste batek gauzatzeko eta, gainera, horrek aukera ematen badu datu pertsonalak eskuratzeko, beharrezkoa izango da tratamenduaren arduradunaren aurretiazko baimena izatea.

Baimenak ekarriko du baldintza hauek bete behar izatea:

- Esku hartzen duten hirugarrenek datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmen honetan jasotakora eta tratamenduaren arduradunaren jarraibi-

deetara egokitzea.

- Tratamendu-eragileak eta esku hartzen duten hirugarrenek datu-tratamenduaren eragile izateko egintza juridiko bat formalizatzea kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldintzetan. Egintza hori tratamenduaren arduradunaren esku jarriko da, hala eskatzen duenean, haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunari jakinaraziko dio, 10 eguneko epearen barruan, esku hartzen duten beste pertsona batzuk kontratatzen badira edo daudenak aldatzen badira, datu pertsonalak eskuratzen dituzten heinean. Tratamenduaren arduradunak ez badio komunikazio horri erantzuten, horrek esan nahi du eskaeraren kontra dagoela.

**Eranskina: "Datu pertsonalen tratamendua"
Anexo: "Tratamiento de datos personales"**

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATUEN BABESARI BURUZKO ERREGELAMENDU OROKORRA ETA 3/2018 LEGE ORGANIKOA

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

REGLAMENTO GENERAL DE PROTECCIÓN DE DATOS y LEY ORGÁNICA 3/2018

Datuen tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak

Toki-erakunde sinatzailea: IRURAKO UDALA

Helbidea: SAN MIGEL PLAZA Z/ 20271 IRURA

Tratamendu-eragilea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia.

Gipuzkoa Plaza, z/g 20004 Donostia.

Datuen babesaren arloko ordezkaria

Tratamenduaren arduradunarena:

- Toki-erakunde sinatzailea: IRURAKO UDALA

Tratamendu-eragilearena:

- dbo@gipuzkoa.eus, Gipuzkoa plaza, z/g 20004 Donostia.

Interesdunaren eskubideak

Interesdunak aukera izango du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo haien tratamenduari mugak jartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko. Horretarako, idatzi bat aurkeztu behar du, datuen babeserako arloko Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari zuzenduta.

Idatzia aurkezteko moduak:

- Presentziala: Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistro Nagusia (Gipuzkoa plaza z/g, Aldundiaren atarian. 20004 Donostia) ala urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, adierazitako lekuetan.
- Internet bidez: <https://labur.eus/TT7Ap>

Datu pertsonalen tratamenduaren inguruko gaietarako, datuen babeseko ordezkariarekin ere harremanetan jar daiteke, dbo@gipuzkoa.eus helbidean.

Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari).

Tratamenduaren helburua

Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jarduera materiala eta teknikoa egitea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako lehiaketa-sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez.

Datuen tratamenduaren arloko jarduerak

Datu pertsonalen tratamenduaren barruan, jarduera hauek egingo dira:

Datuak kontsultatzea	X
Datuak erkatzea (egiaztatzea)	X

Tratamenduaren legitimazioa

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea.

Datu pertsonalen kategoriak

IDENTIFIKAZIO-DATUAK:	
NAN/IFK/Identifikazio-agiri ofiziala	X
Izen-abizenak	X
Posta helbidea	X
Telefonoa	X
Sinadura	X
Nazionalitatea	X
Jaiotza-data	X
Jaioterria	X
Adina	X
Posta elektronikoa	X
Sexua	X
BESTE DATU MOTA BATZUK	
Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak eta beste batzuk)	X
Esperientzia edo historial profesionala	X
Lanpostua edo kategoria profesionala	X
Lizentziak, baimenak edo eskuesteak	X

Interesdunen kategorien deskripzioa

Harremanetarako pertsonak	X
Eskatzaileak	X

Datuen jatorria

Interesdunak edo haienordezkariak	X
Administrazio publikoak (<i>zehaztu</i>):	X
Erregistro publikoak (<i>zehaztu</i>):	X

Datuen hartzaileak

Ez da jasotzen datu pertsonalak lagatzeko aukera.

Datuak kontserbatzeko epea

Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean kontserbatuko dira datuak, luzapenak eta ondorengo legezko betebeharrak barne.

Zer egin datuekin tratamendua amaitu ondoren

Behin tratamendua amaitu ondoren, tratamendu-eragileak hau egin behar du:

Prestazioa amaitu ondoren, tratamenduaren arduradunari (edo pertsona horrek idatziz eta espresuki izendatutako pertsonari), datu pertsonalak itzultzea eta, hala badagokio, datu horiek jasota dauden euskarriak ere bai. Datuak itzultzean guztiz ezabatu behar dira tratamendu-eragileak erabiltako ekipo informatikoetan gordetako datuak. Edonola ere, tratamendu-eragileak kopia bat kontserbatu dezake, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta dituen, prestazioa dela-eta erantzukizunak sor daitezkeen bitartean.

Segurtasun-arloko neurri teknikoaren eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien aplikazioa Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuarekin bat.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- 2022-KALD-0012-00 KREDITU ALDAKETA.

Ogasun batzordean gaia tratatua dago eta diktamenean kreditu gehigarria azaltzen diren partiden azalpenak eman ditu Alkateak: San Migel festetan sartutako ordu extrak eta 2021.urteari dagozkion ordainketak egin eta 2022ko partidari dirurik gabe ez gelditzeko ariketa egiteko da.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio,

gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.120.920.00.00 2022	Oinarrizko soldata. Idazkaritza. F	144.100,00	15.199,50	159.299,50
1 0000.227.172.00.00 2022	Ingurumen zerbitzua (Inguru 21)	15.000,00	5.000,00	20.000,00
1 0000.231.912.00.00 2022	Dietak: goi karguak / talde politikoei	6.000,00	5.000,00	11.000,00
GUZTIRA		165.100,00	25.199,50	190.299,50

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	REMANTE DE TESORERIA	25.199,50
FINANTZAKETA GUZTIRA			25.199,50

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRURA, 2022ko azaroaren 17an

Kontuhartzailea

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- 2023 EKITALDIKO LAN EGUTEGIEN ONARPENA.

Langileek lan egutegiak aurkeztu dituzte eta onartuak geratu dira, halaber, egutegi batzuk kasuan kasu aztertuko dira zerbitzuak dituzten berezitasunagatik.

2023 - IRURAKO UDALA - BULEGO OROKORRA													
	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	
1	URTE BERRI	7:30	7:30		Langileen Eguna	7:30			7:00		SANTU GUZT.	7:00	
2		7:30	7:30		7:30	7:30				7:00	7:00		
3		7:30	7:30	7:30		7:30	7:30			7:00	7:00		
4				7:30	7:30		7:30		7:00	7:00		7:00	
5				7:30	7:30	7:30	7:30		7:00	7:00		7:00	
6	ERREGE EG.	7:30	7:30	Oseag. Santu		7:30	7:30		7:00	7:00	7:00	KONSTUZIOA	
7		7:30	7:30	Ostiral Santu		7:30	7:30		7:00		7:00		
8		7:30	7:30		7:30	7:30			7:00		7:00	INMAKULADA	
9		7:30	7:30		7:30	7:30				7:00	7:00		
10		7:30	7:30	Pazko Astelehe.		7:30	7:30			7:00	7:00		
11		7:30		7:30	7:30		7:30		7:00	7:00		7:00	
12		7:30		7:30	7:30	7:30	7:00		7:00	PILARIKA		7:00	
13		7:30	7:30	7:30		7:30	7:00		7:00		7:00	7:00	
14		7:30	7:30	7:30		7:30	7:00		7:00		7:00	7:00	
15		7:30	7:30		7:30	7:30		Andra Mari	7:00		7:00	7:00	
16		7:30	7:30		7:30	7:30				7:00	7:00		
17		7:30	7:30	7:30	7:30		7:00			7:00	7:00		
18		7:30		7:30	7:30		7:00		7:00	7:00		7:00	
19		7:30	SAN JOSE	7:30	7:30	7:30	7:00		7:00	7:00		7:00	
20		7:30	7:30	7:30	7:30		7:00		7:00	7:00		7:00	
21			7:30	7:30	7:30		7:00		7:00		7:00	7:00	
22			7:30		7:30	7:30			7:00		7:00	7:00	
23		7:30	7:30	7:30		7:30	7:30			7:00	7:00		
24		7:30	7:30		7:30	7:30		SANTIAGO		7:00	7:00		
25		7:30		7:30	7:30		7:00		7:00	7:00		EGUBERRI	
26		7:30		7:30	7:30		7:00		7:00	7:00		7:00	
27		7:30	7:30	7:30	7:30		7:00		7:00	7:00		7:00	
28			7:30	7:30		7:30			7:00		7:00		
29			7:30		7:30	7:30			SAMIELAK		7:00	7:00	
30		7:30		7:30	7:30	7:30				7:00	7:00		
31		7:30		7:30		7:30		SAN INAZIO		7:00			
Orduak	157:30	150:00	172:30	127:30	165:00	165:00	108:30	0:00	140:00	140:00	147:00	119:00	1592:00
Egunak	21	20	23	17	22	22	15	0	20	20	21	17	218

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

6.- GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETA BERMATU ETA HOBETUKO DUEN ERAKUNDEEN ARTEKO KORDINAZIO-RAKO I. UDAL PROTOKOLOA ONARTZEA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du 2019ko legegintzaldi hasieran Berdintasuna alorrari garrantzia eman nahi ziotela eta horren ondorioz dator orain dela ia urte bete baino gehiagoz landu den protokolo hau.

Azaroaren 25ean sinatu beharreko zen, baina Ertzainburuak ezin izan zuen etorri beraz ondoren sinatuko da.

Protokolo honen helburua da, Iruran, zoritxarrez, genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean erakundeen arteko koordinazioak nola izan behar duen, hau da joku arau batzuk jasotzea.

Alkateak gaineratzen du ez dela dokumentu itxi bat eta aldaketak egitea posible izango dela, betiere ahalik eta biktimaren babesa eta arreta bermatze aldera.

Berdintasun batzordeak, 2022ko azaroaren 22an eginiko bileran gai hau aztertu du:

**“UDAL MAILAN INDARKERIA KASUEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOAREN
SINADURARAKO ONARPEN PROPOSAMENA”**

2021-2022ko Irurako udalaren Emakume eta Gizonen berdintasunerako udal plangintzan, indarkeria matxistarik gabeko Gipuzkoa ardatzean hartutako neurria Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako detekzio eta arretarako udal protokoloa sortzea izan da. Lehengo urtearen hasieran, udalak arretarako dituen egitura, baliabideak eta jarduna aztertzeko diagnostiko bat burutu zen. Behin, protokoloa diseinatuta, eragileak zehaztuta eta hauen ekarpenak jasota, behin betiko zirriborroa gauzatu da eta honen zabalkunderako komunikazio plana martxan jartzea da asmoa. Horretarako, udal mailan protokoloari behin betiko onarpena ematea proposatzen da.

Berdintasun batzordean gaia aztertu da, guztien arteko adostasuna jaso da.
Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:

1.- Irurako udalean sortu den genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeen arreta bermatu eta hobetuko duen erakundeen arteko koordinaziorako 1. udal protokoloa onartzea.

Irura, 2022ko azaroaren 22an

**GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEN ARRETA BERMATU ETA HOBETUKO DUEN
ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. UDAL
PROTOKOLOA
IRURAKO UDALA**

- AURKEZPENA
- ADIERAZPENAK
- AKORDIOAK
- I. GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ARTATZEKO ETA ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO NAGUSIAK
- II. ARRETARAKO ESKU HARTZEAREN EZAUGARRIAK
 - II.1.- GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASOASK, URGENTZIAZKO ETA LEHENTASUNEZKO ARRETA
 - II.2.- URGENTZIAZKO ETA LEHENTASUNEZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN
 - II.2.1.- URGENTZIAZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN
 - II.2.2.- LEHENTASUNEZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN
 - II.3.- URGENTZIAZKO ARRETA ETA GERTATU BERRI EZ DIREN SEXU ERASOEN ARRETA
 - II.3.1.- URGENTZIAZKO ARRETA SEXU ERASOEN KASUETAN
 - II.3.2.- GERTATU BERRI EZ DIREN SEXU ERASOEN KASUETARAKO ARRETA
 - II.4.- ESKU HARTZE PROZESUAREN BUKAERA
- III. GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASOEN KASUETAN ARRETA KOORDINATZEKO PROZEDURAK
 - III.1.- GIZARTE ZERBITZUAK

- III.1.1.- GIZARTE ZERBITZUEN ESKU HARTZEA. ZEREGINAK
- III.1.2.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA ERTZAINZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA
- III.1.3.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA
- III.1.4.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA
- III.1.5.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA UDALTZAINGOAREN ARTEKO KOORDINAZIOA
- III.2.- UDALTZAINGOA
 - III.2.1.- KOORDINAZIOA ERTZAINZAREKIN
 - III.2.2.- KOORDINAZIOA GIZARTE ZERBITZUEKIN
 - III.2.3.- KOORDINAZIOA OSASUN ZERBITZUEKIN
- III.3.- ERTZAINZAA
 - III.2.1.- KOORDINAZIOA UDALTZAINGOAREKIN
 - III.2.2.- KOORDINAZIOA GIZARTE ZERBITZUEKIN
 - III.2.3.- KOORDINAZIOA OSASUN ZERBITZUEKIN
- III.4.-OSASUN ZERBITZUAK
- IV. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA
 - IV.1.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA
 - IV.1.2.- KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIAREN EGINKIZUNAK
 - IV.2.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOAA
 - IV.2.1.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOAREN EGINKIZUNAK
- V. IRURAKO UDALAREN ADIERAZPENAK ETA EKINTZA PUBLIKOAK
- VI. ERANSKINAK
 - VI.1.- TOKIKO ERAGILEEN ZERRENDA
 - VI.2.- BALIABIDEEN ZERRENDA
 - VI.3.- DATU BILKETARAKO FITXA
 - VI.4.- DATUAK PARTEKATZEKO BAIMEN ESKAERA

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den dokumentua genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeenganako arreta hobetzeko tresna bat da. Iruran, erakunde desberdinen arteko koordinazioa hobetu eta bermatzeko lan tresna.

Egun onartezina da genero indarkeriaren ondorioz emakumeak hiltzea. Genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumei erakundeen aldetik profesionala, legezkoa eta afektiboa den arreta ematea ezinbesteko da. Argi dago genero indarkeria ezabatu eta deusezteko elkarrekin lan egin behar dugula, prebentzioa, arreta, berroneratzea eta batez ere, koordinazioa hobetuz.

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legeak dio 62. Artikuluan, foru eta toki administrazioek elkarlanerako akordioak eta protokoloak sinatu behar dituztela beraien esparruan, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako borroka direla eta, EAeko administrazioek sinatutako akordioak eta protokoloak garatzeko, zehazteko eta errealitateari egokitzeke.

Irurako udalean ezinbestekotzat jotzen da genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeen arreta bermatu eta hobetzeko martxan jarri nahi den erakundeen arteko koordinaziorako protokolo hau. Egun udalak dituen baliabide eta zerbitzuek lan hau egiten dutela jakinik, arlo honetan egokitze eta hobekuntzarako aukerak ematen dituen lan tresna izan nahi duelako.

Honen adierazle da protokolo honen beharra agerian utzi duen udalean burututako egoeraren inguruko diagnostikoa da. Hauek dira diagnostiko honetatik eratoritzen diren **ONDORIO NAGUSIAK**:

Irurako Udalaren helburua herrian ematen diren genero indarkeria eta eraso sexualen aurrean biktima diren emakumeen arretarako protokoloa diseinatzea da. Protokolo honen diseinuari dagokion prozedura hasi baino lehen, ezinbestekoa da egun Irurako udalak arretarako dituen egitura, baliabideak eta jarduna aztertzea. Hortaz, egoeraren diagnostiko bat burutu da lehenik eta behin.

Diagnostikoa gauzatzeko Irurako Udalean genero indarkeria eta sexu erasoen sarbide diren bi arloetako (Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa) arduradunekin elkarrizketa burutu da eta bertan genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeen arretarekin zerikusia duten honako esparru hauek aztertu dira:

- Genero indarkeria eta sexu eraso kasuen sarbide nagusiak.
- Arriskuaren baloraziorako metodologia eta irizpideak.
- Lehen arretarako udalaren esku dauden baliabideak.
- Kasuen jarraipenerako irizpide eta prozedimendua.
- Koordinaziorako guneak eta hauen funtzionamendua.

Beraz, datozen lerroetan elkarrizketa hauen ondorio nagusiak azalduko dira landutako esparruak kontuan hartuz:

- **GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASOEN SARBIDE NAGUSIAK- IRURA**

Irurako udalean genero indarkeria eta eraso sexual kasuetarako lau sarbide nagusi identifikatzen dira;

- Gizarte Zerbitzuak
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Osakidetza

Sarbide guneak lau izan arren, gehienetan orain arte antzeman diren kasuak Ertzaintzak jakinarazten dizkio udalari gizarte zerbitzuen bitartez. Udalak ertzaintzarekin duen interlokuzio lana beti pertsona berberak betetzen du (Belen). Azken urteetan Gizarte Zerbitzuetatik eraman diren kasuen berri bide honetatik etorri izan da.

- **ARRISKUAREN BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK**

Azken urteetan sarbide nagusia Ertzaintzatik izaten dela kontuan hartuta, bertatik egon ohi da arriskuaren inguruko balorazioa.

Irurako udalak ez du arriskuaren balorazioaren inguruko prozedimendu zehatzik. Hortaz Ertzaintzak udalari, zerbitzu sozialen bitartez jakinarazten dio kasua eta honen arrisku mailaren balorazioa. Balorazio hau da Gizarte Zerbitzuetatik erabiltzen dena.

- **LEHEN ARRETARAKO UDALAREN ESKU DAUDEN BALIABIDEAK**

Lehen arretan emakumeak izan ditzaken behar zehatzei erantzuna emateko baliabideak kudeatzen ditu. Maila honetan, egun dauden baliabide nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetan daude. Orohar aldundiaren baliabideak erabili ohi dira emakumeei lehen arreta eman eta momentuan izan ditzaketen beharrei erantzuteko. Tolosan “Emakumeen Etxea” proiektua abian delarik, bertatik indarkeria kasuetarako eskainiko diren zerbitzu eta baliabideak ere kontuan hartu beharko dira etorkizunean.

Orohar Irurako udalean Gizarte Zerbitzuetatik momentuko beharrei erantzun ahal izateko azkarrenak izan daitezken baliabide eta zerbitzuak bilatzen dira.

➤ **KASUEN JARRAIPENERAKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDIMENDUA**

Momentu honetan ez dago ematen diren kasuen jarraipena egiteko irizpide zehatzik. Egoera bakoitza udalak dituen baliabideekin kudeatzen saiatzen da. Indarkeriaren biktima den emakumearekin ez da inolako jarraipenik adosten. Egiten den jarraipen bakarra ertzaintzatik bideratzen da, bertan egiten baita jasota emakumearen inguruko informazioa.

➤ **KOORDINAZIO GUNEA ETA HAUEN FUNTZIONAMENDUA**

Koordinazioari dagokionez, ez udal barruan ez eta inplikaturako erakunde desberdinen artean ere ez da egituraturako koordinaziorako gunerik existitzen. Egitura hauek funtsezkoak izan ohi dira kasu desberdinen jarraipena eta ahalik eta arreta hoberena eskaintzeko, baina momentu honetan ez dago horrelako egiturarik antolatuta.

ADIERAZPENAK

- Forma eta adierazpen desberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeriak emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko zein moralaren eraso larriak dira eta ondorioz, indarkeria mota hau giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da.
- Emakumeen aurkako indarkeriak bizitzaren eremu desberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun honi, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horretan oraindik ere emakumeak gizonen azpian jarritz.
- Indarkeriaren egiturazko adierazpen hori dela eta, indarkeria sexista deitu ahal diogu, emakumeen aurkako indarkeria horren islada delako, ziurrenik larriena, baina horrez gain, egungo gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna ere badelako, ezberdintasun egoera eutsi eta iraunarazi egiten baitu.
- Osasunaren Munduko Erakundeak dio emakumeen aurkako indarkeria dela ugaltzeko sasoian dauden emakumeak hil izanaren edo larri gelditzearean arrazoia, minbiziaren, trafikoen eta malariaren gainera.
- Indarkeria sexistak emakumeak hiltzen ditu, ondorioz, haur eta nerabe asko amarik gabe gelditzen dira, honek sorrarazten duen familiaren eta orohar gizartearen sufrimendua areagotuz.
- Emakumeen aurkako indarkeria sakonean aztertu eta era askotara zehaztu dute nazio, estatu eta nazioarteko erakundeek. Indarkeriaren jatorri eta ondorioetan bat datoz. Ados daude indarkeriak emakume

guztiei eragiten diela onartzean, gizarte baldintza, familia estatusa, adina, erlijio eta nazionalitate desberdinetakoak izan arren.

- Munduan zehar, indarkeria sexistak aurpegi desberdinak ditu, eta herriaren arabera, indarkeriaren adierazpen batzuk gehiago ematen dira. Estatu mailan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka eragindako indarkeria da nagusi. Horrela, azpimarratu egiten da izandako edo gaur egungo lotura afektiboa, emakumea eta gizona elkarrekin bizi edo ez. Hori guztia, genero indarkeria delitutzat jo da legedian¹.
- Esku artean dugun protokoloa eta orain sinatuko duguna Iruran gerta daitezken genero indarkeria eta sexu erasoen kasuen arreta eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzera bideratuta dago.
- Orain arte genero indarkeria eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeen arreta Irurako udal egituretik kudeatu izan da. Protokolo honen xedea arreta hori bermatu, hobetu eta erakundeen arteko koordinazioarako prozedurak finkatzea da.
- Protokoloek kontuan dute eskumenen gaia, jardueren edukia ezartzen dutelako. Izan ere, jarduerok EAEko botere publikoen jarduerentzako legeen xedapenak eta irizpideak bete beharko dituzte².
- Protokolo hau 2021 urtearen lehen hiru hilabeteen eginiko diagnostikoaren emaitza da. Diagnostiko honi esker, genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeenganako arretarako egun dau den udal egitura eta baliabideak aztertu ditugu, hauen indargune eta ahulguneak ezagutuz.
- Diagnostikoan ezagutu ditugun ahulgune hauek kontuan hartuz, protokoloaren xedea hauei erantzuna ematea da indarkeria jasaten duten emakumeen arreta baliabide eta koordinazioaren bitartez hobetu eta bermatzea da.

AKORDIOAK

LEHENENA: Protokoloa sinatzea. Helburua erakundeen arteko jarduerak koordinatu eta indarkeria sexistak dituen bi adierazpen garrantzitsuren aurrean biktimen arreta hobetzeko: genero indarkeria eta sexu erasoak. Protokolo hau Iruran bizi eta laguntza behar duten emakumeen arreta bermatzeko da.

BIGARRENA: Protokoloaren Koordinazio Orokorrerako Mahaia osatzea. Mahai hau indarkeria mota honen biktima diren emakumei arreta ematen dieten udal teknikari eta arduradun politikoei osatuko dute. Beraien ardura izango da protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa eta beharrezkoa denean egokitzapenak egitea.

HIRUGARRENA: Sinatu duten erakunde bakoitzean erreferentziatzeko pertsona bat izendatzea, koordinazioarako mahai teknikoan koordinazio lanei jarraipena egiteko.

LAUGARRENA: Protokoloaren edukiak banatzea akordioa sinatu duten erakundeen

¹ Genero indarkeria: Genero indarkeriak indarkeria fisikoa eta psikologikoa batzen ditu, askatasun sexualaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasun gabetza arbitrarioak barne. Erasotzaileak senarrak, senarrak izandakoak, edo bestelako harreman afektiboko bikotekideak izaten dira, nahiz eta elkarrekin bizi ez. Genero Indarkeriaren aurkako babes integralaren neurriei buruzko Lege Organikoaren definizioa, 2004ko abenduaren 29an BOEn argitaratua

² Eranskina ikusi: Erakundeen arteko Protokoloa egiteko kontuan izandako legeak eta protokoloak.

menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten profesional guztien artean, hain zuzen ere, indarkeria sexistaren biktimei arreta eskaintzen lan egiten dutenen artean.

BOSGARRENA: Indarkeria sexistaren aurkako jarduerari buruzko trebakuntza planak egin eta martxan jartzea, batez ere, erreferentzia eginez protokoloan agertzen diren jarraibideei, akordioa sinatu duten erakundeen menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten profesionalentzat, indarkeria sexistaren biktimei arreta eskaintzen lan egiten dutenentzat.

SEIGARRENA: Erakunde sinatzaileen jarduera protokolo honen I. atalaren araberrako jarduera printzipioei lotzea: *Genero indarkeria eta sexu erasoak jasandako emakumeei laguntzeko eta esku hartzeko printzipio nagusiak.*

ZAZPIGARRENA: Herrian erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko I. Protokoloaren III. Atalean datozen prozedurak eta mekanismoak jarraitzea: *Genero indarkeriaren eta sexu erasoen kasuetan arreta koordinatzeko prozedurak.*

ZORTZIGARRENA: Koordinaziorako Mahai Teknikoan parte hartzea, Irurako I. Protokoloari jarraipena egin eta honen funtzionamendua ebaluatu ahal izateko.

BEDERATZIGARRENA: Protokoloan ezarritako koordinaziorako mekanismoetan, indarkeria sexistaren aurka egiten duten eskualdeko beste gizarte eragile batzuen partaidetza sustatzea.

HAMARGARRENA: Protokoloak jasotzen dituen esparruak betetzeko beharrezkoak diren prozedurak, tresnak eta baliabideak bermatzea.

Akordioa sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, honako Protokoloa sinatu dute Iruran xxxxxxean

**GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN
EMAKUMEEN ARRETA BERMATU ETA HOBETUKO DUEN
KOORDINAZIORAKO
I. UDAL PROTOKOLOA- IRURA**

**I.GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN
EMAKUMEAK ARTATZEKO ETA ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO NAGUSIAK**

Zerbitzu publiko batetara gerturatzen den edozein emakumek, bizi duen indarkeria sexistari buruzko egoeraren inguruko jabetze maila edozein dela ere, arreta jasoko du. Helburua, emakumea bera eta bere menpe daudenak indarkeriarik gabe bizi ahal izatea da. Eskainiko zaion arreta honako irizpide hauen arabera antolatuko da:

1. **Lehentasuna:** Genero indarkeria eta sexu erasoen biktima diren emakumeen arretak lehentasuna izango du. Hortaz, arretarako zerbitzua bera izan daiteke emakumearengana joan daitekena, esku hartzea bideratu eta errazteko.
2. **Laguntza osoa eta pertsonalizatua:** Protokolo honetan aipatzen diren genero indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien menpekoak diren pertsonaei ematen zaien arretak indarkeria egoera desberdinetatik sortzen diren behar ezberdinak hartuko ditu kontuan. Horretarako, kasu bakoitzean egoera pertsonal eta sozialaren arabera egokienak diren zerbitzuak eta laguntzak eskura jarriko zaizkie.
3. **Hurbiltasuna:** Emakumeei eman beharreko arreta hurbilekoa izango da. Hurbiltasun horrek (geografikoa, emozionala eta kasua ezagutzearena) esku hartzea hobetzen duelako, jarraipena, koordinazioa eta kasuaren azterketa erraztuz. Erakundeak eskaintzen duen laguntzarengan emakumearen konfidantza sortzea ezinbestekoa da.
4. **Berdintasuna:** Arreta biktima guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da. Egoera zibila, orientazio sexuala, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko, maila ekonomiko, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala, edo izaera pertsonal edo soziala edozein dela ere. Era berean, beharrezko neurriak hartu beharko dira egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatu daitezten, bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein dela ere euren egoera administratiboa.
 - a. Ezgaitasunak dituzten emakumeek informazioa jaso eta baliabideak erabiltzeko duten eskubidea bermatu beharko dira. Kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira, hala nola, garrariorako laguntza, keinu hizkuntza interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak.... Emakume atzerritarrek hizkuntzari dagokionez izan ditzaketan zailtasun eta eragozpenak gainditzeko neurriak ere hartu beharko dira. Emakume hauei jakinaraziko zaie erroldatzeko eskaria egitea zein garrantzitsua den babes sozialaren sareko oinarritzko zerbitzuak jaso ahal izateko.
 - b. Garrantzitsua da indarkeria jasaten dueten emakumeei laguntzeko sistemak aurrerapauso handiak eman dituela jakinaraztea. Hala ere, egungo zerbitzu eta baliabideek mugak ere badituzte, nolabaiteko autonomia pertsonala duten emakumeentzako direlako. Gainerako zailta-

sunak dituzten emakume taldeek aukera gutxiago dituzte zerbitzu eta baliabideetara iristeko. Tamalez, batzuetan zerbitzuetatik kanpo geratzen dira.


5. **Prebentzioa:** Arretaz gain, garrantzitsua izango da emakumeen aurkako indarkeriarik egon ez dadin prebentzio lanarekin jarraitzea. Kontuan hartu behar da ere biktima izan daitezkeela, bai emakumeak, bai beraien kargu dauden haur eta nerabeak eta menpekotasuna duten pertsona helduak.
6. **Adingabeen interesen defentsa:** Protokolo hau aplikatzeko garaian, emakume biktimek euren kargu dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira kontuan, adingabeen eskubideak, babesa, ongizatea eta garapen osoa bermatu ahal izateko. Garrantzitsua da adingabeak ere genero indarkeriaren biktimatzat onartu eta arreta egokia ematea; espazio aproposak, arreta espezializatua, deklaratzeko orduan adingabeak aurrean ez egotea, ezta gertatutakoaren itzultzaile lanetan jartzea.
7. **Jabetzea eta normalizazioa:** Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartze aldera, indarkeriaren biktima diren emakumeek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahalegina egin beharko da.
8. **Eraginkortasuna eta arintasuna:** Protokoloak jasotzen dituen jarraibideak aplikatu ahal izateko, antolatuta eraginkor eta arina bermatu beharko da, horrelako egoeratan ohikoak izaten diren premiak eskatuta berehalakotasunarekin jokatzeko.
9. **Berbiktimizazioa ekiditzea:** Protokoloan aipatzen den indarkeria jasaten duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ekidin beharko da. Hortaz, biktimek profesionalen eta erakundeen esku hartzearen ondorioz jasaten dituzten enbarazuak ahalik eta gehien murriztuko dira.
10. **Segurtasuna eta babesa:** Lanbideak dakartzan betebeharrak juridikoak oinarritzko konpromiso etikoa eta emakumeek behar duten babesaren bermea dira. Esku hartzearen xede nagusia biktimaren osotasuna da, bizi izan dituen edo bizi dituen ekintza bortitzen inpunitatea bultzatu gabe.

Protokolo honetan aurreikusitako arreta eskaintzeko jarraibideak eta bideak betetzea zein inplikaturik dauden erakundeak koordinatzea profesionalen ardura izango da.

II. ARRETARAKO ESKU HARTZEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

II.1. GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASOAK, URGENTZIAZKO ETA LEHENTASUNEZKO ARRETA

Genero indarkeria kasuak desberdinak izan ohi dira. Hau dela eta, emakumeak berak edo arreta zerbitzuetako profesionalak egiten duten arriskuaren balorazio kontuan hartuz, esku hartzeko bi irizpide nagusi erabiliko ditugu:



II.2.- URGENTZIAZKO ETA LEHENTASUNEZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN

II.2.1- URGENTZIAZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN

Urgentziatzko egoeretan, **berehalako erabakiak hartu behar dira**, eta hartu beharreko erabakiak eta egin beharrekoak ahalik eta azkarren egin behar dira, emakumeak berak bere arrisku egoera aitortu duelako. Honako kasuetan:

- A) Ageriko lesioak baditu (emakumeak onartu edo ez, lesioak bikotekideak edo bikotekide izandakoak eragindakoak direnean).
- B) Salaketa jarri badu edo jarri nahi badu.
- C) Bikote harremana amaitu nahi badu, eta erabaki honek emakumearen bizitza arriskuan jartzen duela baloratzen denean.
- D) Nahiz eta emakumeak jasan dezaken arriskua ez onartu, zerbitzuko langile eta profesionalak arrisku adierazleak antzeman baditu, emakumeari adierazi beharko dio zer gerta dakioken etxera bueltatzu gero edo oso denbora laburrean.

Kontuan izan beharko dugu batetik, emakumeak egiten den arriskuaren balorazioa onartu ez eta urgentziatzko babes neurriak baztertu ditzakela (abegi etxea, salaketa jartzea), eta bestetik, berak bakarrik egoerari aurre egin dakiokela uste izatea. Beraz, momentu oro zerbitzuko langile edo profesionalaren zeregina emakumearen segurtasuna bermatzea izango da, eta modu honetan jokatu beharko du:

- Emakumeari babesteko neurri zehatzak eta segurtasun plan bat eskainiko zaizkio.
- Ofiziozko parte edo atestatua idatziko du.
- Kasuaren jarraipen zorrotza egingo du.

Arriskuaren balorazioak ez du emakumearen segurtasuna guztiz bermatzen. Hala eta guztiz ere, zerbitzuetako langile eta profesionalen esperientzia ezinbestekoa da jasotako informazioa kudeatu eta emakumeari hartu dituen erabakien ondorioak zeintzuk izan daitezken azaltzeko.

Urgentziatzko egoerak Gizarte Zerbitzuetan, Osasun Zerbitzuetan, Ertzain etxean eta Udaltzaingoan atendituko dira. Zerbitzu hauek urgentziatzko egoeran esku hartu ondoren, bestelako esku hartzeak jarri beharko dira martxan: epaiketa, epe ertaineko edo luzerako bizilekua, zerbitzu espezializatuak edo laguntza ekonomikoak eskatzea... Hortaz esku hartze prozesuak jarraitu beharko du aipatutako zerbitzuak martxan dauden bitartean.

Kasu guztietan, zerbitzuko langile eta profesionalak emakumeari adierazi beharko diote legez derrigortua dagoela dagokion autoritateari gertatutakoaren berri ematea, Fiskaltza, Epaitegia, epaile edo ertzainari delitua agerikoa baldin bada, Prozedura kriminalerako Legeak dioen bezala (259³ eta 262⁴ artikulua), emakumearen egoera eta izandako esku hartzea jakinaraziz.

Kasu guztietan, zerbitzuko langile edo profesionalak azpimarratu beharko dio emakumeari

³ Prozedura Kriminalaren Legea. **259. artikulua**. "Edozein delitu publikoren egitea ikusten duenak berehalakoan horren berri eman beharko dio instrukzio-epaile, bake-epaile, eskualdeko epaile edo udal-epaileari, edo, bera zein tokitan izan eta toki horietatik hurbilen dagoen funtzionario fiskalari; bestela, 25 pezetatik 250 pezetarainoko isuna ezar dakioko".

⁴ Prozedura Kriminalaren Legea. **262. artikulua**. "Norbaitzuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute berehala horren salaketa egin beharko diote Fiskaltzari, auzitegi eskudunari, instrukzioepaileari, eta, halakoa izan ezean, tokitik hurbilen dagoen udaltzainari edo poliziako funtzionarioari, baldin eta ageri-ageriko delitua bada. Betebehar hori betetzen ez dutenei 259. artikuluan aipatutako isuna ezarriko zaie diziiplina bidez. Parterik eman ez duena medikuntza, kirurgia edo farmaziako irakaslea bada eta parte horrek beraren lan-jarduerekin zerikusia badu, orduan isuna ezin izango da izan 125 pezeta baino gutxiagokoa, ezta 250 pezeta baino gehiagokoa ere. Parte hori eman ez duena enplegatutako publikoak bada, aurrekoaz gain, horren berri emango zaio zuzenean gorago dagoenari, administrazio-arloan gerta daitezkeen ondoretarako. Artikulu honetan xedatutakoa ulertuko da, ez-emate horrek legeen arabera erantzukizuna sortzen ez duenerako".

arreta eman ahal izateko ezinbestekoa dela profesional guztien arteko koordinazioa. Informazioa bideratu eta partekatzeke, emakumeari idatzizko baimena ⁵eskatuko zaio, beti ere, ahalik eta arreta hoberena emateko:

- Emakumeak idatzizko baimena ematen badu, zerbitzuak, beste zerbitzuekin harremanetan jarri, informazioa jaso eta esku hartzea koordinatuko du.
- Emakumeak baimenik eman ezean, zerbitzuak arreta ematen jarraitu beharko du, nahiz eta berriro ere emakumeari aholkatu beharko dion komenigarria dela zerbitzu guztien arteko elkarlana eta koordinazioa, modu horretan baliabide gehiago eskuratu eta emakumeari bizi duen egoeratik ateratzen laguntzeko bidea dela adieraziz.

II.2.2.- LEHENTASUNEZKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN

Lehentasunezko egoeratan ez da berehalako erabakirik hartu behar, honako arrazoi hauengatik:

- Biktimak ez du salaketa jarri nahi, erabakia hartzeko bere denbora behar duelako.
- Eraso ez da gertaera puntual bat, kontextu baten barruan dagoelako eta emakumeak egoera honi nola aurre egin pentsatu behar duelako.
- Tratu txarrak eragin dizkion bikotekidea uzteko erabaki hartu aurretik, zerbitzuen etengabeko laguntza behar duelako.
- Beste egoera batengatik.

Lehentasunezko egoera batzuetan urgentziatzeko esku hartzeak behar dituzten egoerak eman daitezke.

II.3.- URGENTZIAKO ARRETA ETA GERTATU BERRI EZ DIREN SEXU ERASOEN ARRETA

II.3.1-URGENTZIAZKO ARRETA SEXU ERASOEN KASUETAN

Sexu eraso gertatu berria denean, urgentziak bi ezaugarri ditu:

- Emakumeari arreta egoera larrian ematen zaiola.
- Eraso izan eta 72 orduren barruan, erasotzailea identifikatu ahal izateko auzitegirako frogak jaso behar direla. 72 orduetako epea era malguan ulertu behar da, froga fisikoak lortzeko erabiltzen baita.

Beharrezkoa kontsideratzen bada, emakumeari ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan beharko zaio, eta aho bidezko eraso izan bada, ez jateko eta ez edateko, etorkizuneko prozesu judizial batetarako funtsezkoak izan daitezken frogak deusezta ez

Kasua edozein dela ere, zerbitzuko langileak emakumeari adierazi beharko dio legez derrigortuta dagoela dagokion autoritateari (fiskaltza, epaitegia, ertzaintza...) gertatutakoaren berri ematea.

Kasu guztietan, zerbitzuko langileak azpimarratuko dio oso garrantzitsua dela profesional guztien arteko koordinazioaren garrantzia.

Informazioa eta datuak bideratu eta partekatzeke, emakumeari idatzizko baimena eskatuko

⁵ Eranskinak ikusi

zaio, beti ere, arreta hobetzeko asmoz;

- Emakumeak baimena ematen badu, zerbitzuak beste zerbitzuekin harremanetan jartzeko, honek informazioa eta datuak jaso eta esku hartzea koordinatuko du.
- Emakumeak baimenik ematen ez badu, zerbitzuak arreta ematen jarraituko du, nahiz eta berriro ere emakumeari zerbitzuen laguntza izatea komeni zaiola adieraziko zaion, baliabide gehiago eskuratu eta bizi duen egoeratik ateratzen laguntzeko.

II.3.2- GERTATU BERRI EZ DIREN SEXU ERASOEN KASUETARAKO ARRETA

Gertatu berri ez diren sexu erasoetan, froga fisikoak lortzea oso zaila izaten da. Emakumeak eraso jasan duela edo zuela esaten badu, ordurarte ezkutuan mantendu nahi izan duelako edo gertatutakoa orain kontatzea erabaki duelako, dagokion zerbitzuak hartatuko du, eta emakumeak baimena ematen badio, zerbitzu espezializatueta bideratuko du.

II.4- ESKU HARTZE PROZESUAREN BUKAERA

Kasu bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartuta, batzuetan, esku hartzeak urgentziazko egoerei eta lehentasunezko erantzungo die, biktimak etengabeko laguntza eskatzen badu, edo zerbitzuak utzi nahi baditu. Hori dela eta, esku hartze prozesu anitzak daude.

Nolanahi ere, kasuen jarraipena Gizarte Zerbitzuen ardura da. Jarraipena bertan behera gera daiteke emakumeak horrela eskatuz gero, hitzez edo isilbidez:

- Indarkeria zikloa apurtu duelako.
- Bikote harremana amaitu delako.
- Laguntzarako beste sare bat duelako.
- Bizilekua aldatu duelako.
- Edozein kasutan ez duelako Gizarte Zerbitzuen esku hartzerik nahi.

III. GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASO KASUETAN ARRETA KOORDINATZEKO

GENERO INDARKERIA ETA SEXU ERASOAK BIZI DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO SARBIDE NAGUSIAK

Indarkeria motaren arabera sarbide batzuk detekzio-puntuak izaten dira ere. Detekzio-puntu hauek, kasu jakinetan eta ikuspuntu ezberdinetatik landuak, funtsezkoak izaten dira emakumeekin esku-hartzeko eta arretako mekanismoak aktibatu ahal izateko. Hein handi batean detekzio-puntu hauen garrantzia zerbitzu desberdinetan lan egiten duen pertsonalaren menpe egongo da (hain zuzen ere sentsibilizazio eta inplikazio maila indarkeria matxistarekiko) arazoa detektatu eta baliabide espezializatueta bideratzeko.

Iruran sarrera puntuak honakoak dira:

UDAL ZERBITZUAK ETA SAILAK:

- OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK
- UDALTZAINGOA

FORU ZERBITZUAK:

- GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUAK

ZERBITZU AUTONOMIKOAK:

- ERTZAIN-TZA. ORIAKO ERTZAIN-ETXEA
- IRURAKO ANBULATEGIA
- TOLOSAKO ASUNZION KLINIKA
- BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (SAV)
- SATEVI (Eusko Jaurlaritzako Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua 24 ordu)

BESTE BATZUK: Irura Moretuz emakumeen taldea, Irurako Ikastola.

III.1.- GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuak genero indarkeria zein sexu eraso kasuetan esku hartze sozialerako udal egitura nagusiak dira.

III.1.1.- GIZARTE ZERBITZUEN ESKU HARTZEA- ZEREGINAK:

- Emakumeen akonpainamendua antolatu eta koordinatzea.
- Genero indarkeria eta sexu eraso biktima diren emakumei buruzko Ertzaintzaren informazioa jaso eta jarraipena egitea.
- Udaltzaingoaren gertaera parte jarraipena egitea.
- Emakumearen arretarako udal, eskualde, foru eta autonomia zerbitzu espezifikokoak kudeatu eta koordinatzea.
- Oinarrizko Gizarte langileak laguntza eske doazen emakumeen erreferentzia dira, salaketa jarri edo ez. Beraz kasua udal edo foru zerbitzuetara bideratzea, jarraipena egitea eta koordinatzea izango da gizarte langilearen ardura.
- Emakumeak bere datuak partekatzeko baimenik ematen ez badu ere eskura dituen baliabideen informazioa eskainiko zaio.
- Eskainiko zaion informazioak formatu egokia izango du, emakumeak diskrezioz eraman dezan eta edozein momentutan erabil dezan.

III.1.2.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA ERTZAIN-TZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

➤ URGENTZIAZKO EDO LEHENTASUNEZKO GENERO INDARKERIA KASUETAN:

- Emakume batek Irurako Gizarte Zerbitzuetara jotzen badu laguntza eske eta salaketa jarri nahi badu, gizarte langilearen ardura Oriako Ertzain etxera deitu eta ahalik eta azkarren emakumeari genero indarkeria kasuak kudeatzen dituen ertzain baten arreta jasotzen duela bermatzea izango da.
- Beharrezkoa bada, gizarte langilea emakumearekin joango da Ertzain Etxera eta berarekin egongo da salaketa jarri bitartean, deklarazioaren prozesuan parte hartu gabe. Momentu horretan gizarte langileak ezin badio lagundu, Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzura deituko da, emakumeari Oriako Ertzain Etxera laguntzeko.

- Emakumeak Ertzaintzari emandako datuak Gizarte Zerbitzuei bideratzeko baimena ematen dionean eta gizarte langileak horren berri duenean, azken hau emakumearekin jarriko da harremanetan berarekin esku hartze programa prestatu, adostu eta egin beharrekoak martxan jartzeko. (Informazioa, beste baliabideetara bideratzea, tramiteak kudeatzea...).
- Kasuaren jarraipena egiteko Gizarte langilea Ertzaintzarekin koordinatuko da, telefonoz eta idatziz. Horretarako, emakumearen inguruko informazioa eskatzeko idatzizko ereduak erabiliko dira emakumearen baimen idatzia izan ondoren.

➤ **SEXU ERASOEN KASUAN (GERTATU BERRI DIRENAK ETA GERTATU BERRI EZ DIRENAK):**

- Sexu erasoen kasuan, gertatu berri izan ala ez, emakumeari aholkatuko zaio Tolosako Asunzio Klinikara joatea, eta dagokion osasun laguntza jaso ondoren salaketa jar dezan Oriako Ertzain etxera joateko esango zaio.
- Emakumeak salaketa jarri nahi badu, Ertzaintzari deituko zaio gertatutakoaren berri eman eta emakumea Ertzain etxera daramatela jakinarazteko. Beharrezkoa bada emakumeari Ertzain Etxera lagunduko zaio.
- Momentu horretan gizarte langileak ezin badio lagundu, Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura deituko da (943224411, 7:00tatik 21:00tara, 112 21:00tatik 7:00tara) emakumeak behar duen akonpainamendua bermatu eta koordinatzeko.
- Kasuaren jarraipena egiteko, udaleko Gizarte Zerbitzua Ertzaintzarekin koordinatuko da, telefonoz eta idatziz. Horretarako, emakumeari buruzko informazioa eskatzeko idatzizko ereduak erabiliko dira, emakumearen baimen idatzia jaso ondoren.

III.1.3.- UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

➤ **URGENTZIAZKO EDO LEHENTASUNEZKO GENERO INDARKERIA KASUETAN:**

- Udal edo foru mailako baliabidea aukeratzeko irizpideak emakumearen segurtasuna edo bestelako arrazoiak izan daitezke. Foru abegia aukeratzeko bada, berehala Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura deituko da, ahalik eta azkarren, emakumearen bila joan eta abegi etxera eraman dezaten. Bestelako abegi baliabidea bada, zerbitzuko arduradunari deituko zaio eta era berean emakumea bertara eramateko akonpainamendua bermatu eta koordinatu beharko da.
- Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuekin koordinazioa jarraitua izan beharko du, emakumearen jarraipen osoa egin eta behar dituen zerbitzuak eta baliabideak eskaini ahal izateko, jasaten ari den indarkeria egoera atzean utz dezan.
- Erasoak Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak artatu badu, gizarte langilea zerbitzuekin jarriko da harremanetan, emakumea udaleko gizarte zerbitzuetan ere artatua izan dadin. Hortaz, bi zerbitzuen arteko komunikazioa bermatu beharko da informazioa modu egokian partekatu, emakumeari arreta egokia eman ahal izateko eta eskura dituen baliabide guztiak eskaintzeko.

- Aurreko atalean aipatu den moduan, emakumeak akonpainamendua behar badu Larrialdietarako Foru Zerbitzura eta gizarte langileak ezin badio lagundu, Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura deituko du salaketa jartzeko orduan edo eta bestelako tramite administratiboren bat egiterakoan akonpainamendu ezpezializatua bermatzeko.

➤ **SEXU ERASOEN KASUAN (GERTATU BERRI DIRENAK ETA GERTATU BERRI EZ DIRENAK):**

- Eraso Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak artatu badu, gizarte langilea zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, emakumea udaleko gizarte zerbitzuetan ere artatua izan dadin. Hortaz, bi zerbitzuen arteko komunikazioa bermatu beharko da informazioa modu egokian partekatu, emakumeari arreta egokia eman ahal izateko eta eskura dituen baliabide guztiak eskaintzeko.

III.1.4.- UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

➤ **URGENTZIAZKO EDO LEHENTASUNEZKO GENERO INDARKERIA KASUETAN:**

- Emakumeak udaleko Gizarte Zerbitzuetara jotzen badu eta osasun laguntza behar badu, gizarte langileak dagokion osasun zentzora lagunduko dio, lesioen larritasunaren arabera, herriko anbulategira edo Tolosako Asunzion Klinikara edo Donostiako Ospitalera. Edozein kasutan genero indarkeria kasu batekin agertuko direla jakinaraziko die bertan agertu aurretik. Beharrezkoa bada, emakumeari gizarte langileak lagunduko dio, bestela Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan beraiek arduradu daitezten.
- Gizarte Zerbitzuetan artatutako emakumeak aurretik ezarritako babes neurriak baldin baditu, gizarte langileak emakumearen idatzizko baimenarekin, egoeraren berri emango die osasun zerbitzuei, erasotzailearekin topo egin ez dezan.

➤ **SEXU ERASOEN KASUAN (GERTATU BERRI DIRENAK ETA GERTATU BERRI EZ DIRENAK):**

- Emakumea Gizarte Zerbitzuetara hurbildu eta sexu eraso jasan duela esan badu, gizarte langileak berehala Tolosako Asunzion Klinikara deituko du, horrelako egoera baten aurrean behar den guztia aldeztu aurretik prest izan dezaten.
- Beharrezkoa bada, ospitalera lagunduko zaio. Akonpainamendu hau udaleko gizarte zerbitzuek edo eta Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak egingo dute.
- Emakumeak idatzizko baimena eman ondoren, informazioa osasun zentroarekin partekatuko da, emakumeak arreta hobea eta osoa izan dezan.

III.1.5.- UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA UDALTZAINGOAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

➤ **URGENTZIAZKO EDO LEHENTASUNEZKO GENERO INDARKERIA KASUETAN:**

- Udaltzaingoak bidalitako genero indarkeriaren gertaera txostenak expedienteetan sartu beharko dira. Horretarako zerbitzuen artean informazioa partekatuzko ereduak erabiliko dira, emakumearen idatzizko baimena jaso ondoren.

- Udaltzaingoarekin emakumearen inguruko informazioa partekatuko da, bere segurtasuna bermatzeko zaintza behar badu, honen baimen idatzia jaso ondoren. Horretarako, informazioa partekatzeko ereduak erabiliko dira.

- **SEXU ERASOEN KASUAN (GERTATU BERRI DIRENAK ETA GERTATU BERRI EZ DIRENAK):**

- Genero indarkeria kasuetan gertatzen den bezala, sexu erasoen kasuetan ere, gertaera txostenak expedienteetan sartuko dira. Horretarako, zerbitzuen artean informazioa partekatzeko ereduak erabiliko dira, emakumearen idatzizko baimena jaso ondoren.

III.2.- UDALTZAINGOA

Genero indarkeria kasuak Ertzaintzak artatzen ditu, hau dela eta Irurako udaltzaingoak ez du jarduera protokolorik. In situ esku hartzen duten kasuetan, erasotzailea biktimarengandik urrundu eta zuzenean Ertzaintzari deitzen zaio.

III.2.1- KOORDINAZIOA ERTZAINZAREKIN:

a. Urgentziazko edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan

- Biktima udaltzaingora joaten bada, telefonoz deitu edo eta udaltzaingoak esku hartzea in situ egin behar bada, kalean zein emakumearen etxean, lehenbailehen ertzaintzara deitu beharko du, emakumeak nahi bada, kasua bideratu eta salaketa jarri ahal izateko.
- Emakumeak salaketa jarri nahi ez bada, udaltzaingoak eginiko esku hartzearen txostena Ertzaintzara bidaliko dio. Hala ere, emakumea Gizarte Zerbitzuetara bideratuko du bertatik bere esku dauden baliabideen berri jaso dezan.
- Biktimak urgentziazko arreta behar baldin bada, eta esku hartzea Gizarte Zerbitzuen ordutegieta kanpo baldin bada, udaltzainak emakumea zuzenean Ertzain etxera eramango du, Ertzaintzak tramiteak egin eta Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako abegi Foru baliabidera bideratzeko.
- Kasu baten jarraipena egiteko agindua iristen denean, urruntze agindua adibidez, lehenengo Ertzaintzatik eta gero Epaitetik beharrezko baliabideak erraztuko dira (erasotzailearen argazkia eta bestelako datu garrantzitsuak) urruntze aginduen jarraipen egokia egin ahal izateko. Hortaz jarraipena egiteko Ertzaintzak eskura dituen datuak Udaltzaingoiari helaraziko dizkio, urruntze aginduaren inguruko informazioarekin batera (epaiketa egin den, epairik dagoen...)

b. Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan

- Sexu eraso gertatu berri bada (biktimak salatu baino 72 ordu aurretik), Udaltzaingoak Ertzain Etxeko Operazietako buruari deituko dio, emakumea Tolosako Asunzion Klinikara eraman, egin beharreko tramiteak egin eta ustezko erasotzailea atxilotzeko.
- Era berean, Udaltzaingoak erasotzailearen inguruan duen informazio guztia helaraziko dio Ertzaintzari. Informaziorik izan ezean, ikertzen hasiko da: erasotzailearen ohiturak, non ibiltzen den etab... Aldi berean Ertzaintzak ere Udaltzaingoiari eskura duen informazioa helaraziko dio.

- Sexu erasoia 72 ordu igarota gertatutakoa bada, Udaltzaingoak gertatutakoaren inguruan jasotako informazioa Ertzaintzari emango dio.

III.2.2- KOORDINAZIOA GIZARTE ZERBITZUEKIN:

a. Urgentziatzko edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan

- Emakumeak Udaltzaingoari bere datuak Gizarte Zerbitzuekin partekatze baimena ematen badiu, Gizarte Zerbitzuekin kontaktua egingo da lehenbailehen gertaeraren berri izan dezaten.
- Emakumeak urgentziatzko arreta behar badu, emakumea Gipuzkoako Gizarte Larrialdietarako Foru Abegi baliabidera bideratuko da.

b. Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei telefonoz deituko zaie, gertaeren berri izan dezaten.

III.2.3- KOORDINAZIOA OSASUN ZERBITZUEKIN

a. Urgentziatzko edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan

- Emakumeak mediku laguntza behar badu, udaltzainak dagokion anbulategira edo Tolosako Asunzion Klinikara eramango du. Batera zein bestera, alde zuzenetik telefonoz deituko da, emakumea bertara daramatela jakinarazi eta bertan dagokion osasun protokoloa martxan jarri dezaten.
- Emakumeak dituen lesioak larriak baldin badira, Udaltzaingoak SOS Deiak-era deitu eta ambulanzia eskatuko du emakumea lekuan bertan artatu dezan. Hau horrela, Udaltzaingoaren ardura izango da Ertzaintzara deitu eta emakumearen segurtasuna eta osotasun fisikoa bermatzea.

b. Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan

- Udaltzaingoak Ertzaintzara deituko du, emakumea Tolosako Asunzion Klinikara eramango eta bertan beharrezko tramiteak egin ditzan.
- Emakumeak jasandako indarkeriaren ondorioz lesioak dituela badiu, neurri profilaktikoak eman eta lesio parte bete beharko da, ondoren Anbulategiko zuzendaritzatik Tolosako epaitegira bidaltzeko.
- Osasun langileek emakume bat genero indarkeriaren biktima izan daitekeenaren susmoa izanez gero eta hori uste ahal izateko aztarnak topatzen dituztenean, genero indarkeria gertatu ote den baieztatu edo baztertu beharko dute. Hortaz garrantzitsua da osasun langileak genero indarkeriaren zantzu eta sintomak ezagutzea, eta kontsultan adi egon beharko dute halako kasuak identifikatu ahal izateko.
- Biktima den emakumeak gertaerak salatu eta babes neurriak nahi ez baditu, profesionalak legez Epaitegiari gertatutakoaren berri ematera derrigortuta daudela jakinaraziko zaio.
- Pediatria zerbitzuak adingabeei egindako abusuak eta indarkeria zantzuak antzematen baditu, behala ofizioko salaketa jarriko du.
- Kasu guztietan, lehen esku hartzea amaitu ondoren, eskaintzen zaion arreta zabaltze aldera hurrengo urratsa Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea izango da, beti ere emakumearen baimenarekin.

III.3.- ERTZAINZA

Ertzaintzak, bere eginkizunen artean, genero indarkeria, etxeko indarkeria eta sexu eraso biktimentzako arreta ets esku hartze espezializatua du.

Honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Urgentziako esku hartzea.
- Salaketa edozein ordutan jartzeko aukera (24 ordu).
- Babes eskarien agindua tramitatzea.
- Emakume biktimentzako arreta espezializatua. Arreta polizialaz gain, emakumeari segurtasun beharren arabera baliabideen inguruko informazioa ematen zaio, eta emakumeak hala nahi badu, jarraipena egiten zaio.
- Urgentzietarako telefonoa eskaintzen zaio, “Bortxa” telefono mugikorra, 112 eta Ertzain Etxeko zenbakiekin.
- Emakumearen arrisku egoeraren arabera babes neurriak finkatzen dira. Zaintza puntualetik etengabeko zaintzara.
- 900 840 111, 24 orduetan martxan dagoen telefono zenbakia. Laguntza emozionala, informazioa eta orientazioa.

zaturko dituzte eta abokatuak Ertzain Etxera noiz berduko den esango diote emakumeari.

III.3.1.- KOORDINAZIOA UDALTZAINGOAREKIN

Esku hartze poliziala ertzaintzaren eta Irurako udaltzaingoaren arteko koordinazioan oinarrituko da.

- Urgentziako edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan:** Ertzain etxeak udaltzaingoari genero indarkeria eta sexu eraso kasuen berri emango dio, biktima den emakumearen arreta eta babesa bermatu ahal izateko.
 - Udaltzaingoak biktimaren inguruko daturik izango ez balu, Ertzaintzak behar dituen datuak emango dizkio (babes aginduak, helbideak, etab...)
 - Emakumeak bere etxera gauzak hartzera joan behar badu, Ertzaintzak lagunduko dio bertara eta esku hartze hau udaltzaingoarekin koordinatu beharko du.
- Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan:** Udaltzaingoak herriaren inguruan duen informazioa kontuan hartuz, Ertzaintzari eskura duen informazioa emango dio, eta, aldi berean, informazioa lortzeko estrategiak koordinatuko dituzte bi erakundearen artean.

III.3.2.- KOORDINAZIOA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEKIN

- Urgentziako edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan**
 - Emakumea gizarte zerbitzuen erabiltzailea baldin bada, telefonoz informazioa partekatuko da, espediente osatu ahal izateko.
 - Gizarte zerbitzuei emakumearen arreta hobetzeko beharrezkotzat jotzen den informazioa eskatuko zaie, idatziz eta erabiltzailearen alde aurreko baimenarekin, salaketa jartzen den momentuan, eta baita babes agindua indarrean dagoen bitartean ere, azken hau ematen bada.

Bi eskariak egiteko eredu hauek erabiliko dira:

→ Izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko baimen akta

→ Genero indarkeriaren biktimari buruzko informazio eskaera

- Emakumeari gizarte zerbitzuek arreta eta berroneratze prozesu osoan duten garrantziaren inguruko informazioa emango zaio, eta hauen erabilpenaren inguruan aholkatuko zaio.
- Emakumea gizarte zerbitzuetara joan eta salaketa jartzeko asmoa adierazten badu, bertatik Ertzaintzara deituko da noiz joan daiteken zehaztu ahal izateko.
- Biktimak bere segurtasuna arriskuan ikusten baldin badu, edo eta hala eskatzen badu, lagundu egingo zaio bai berari eta bai bere ardurapean dauden adingabeei ere, berak esandako helbide edo beste tokiren batetara (senitarteko edo lagunen baten etxera...). Ertzaintzak premiazkoa kontsideratzen badu, Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura deituko du.
- Ertzaintzak Iruran izandako genero indarkeria kasuen berri emango die momentu oro herriko gizarte zerbitzuei, arretarako baliagarria den informazioa irekita dauden espedienteetan sartu eta artxibatu ahal izateko.
- Esku hartze eta koordinazio prozesua amaitzen denean ere, ertzaintzak kasu bakoitzaren jarraipena egingo du, urgentziatzko zein lehentasunezko genero indarkeria kasuetan.

b. Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan

- Sexu erasoaren biktima izan den emakumearen adostasunarekin eta honek idatzizko baimena eman badu, berari dagokion informazioa Gizarte Zerbitzuei emango zaie, bertatik bere arreta ahalbidetzeko eskura izan ditzaken baliabideen berri eman ahal izateko.

III.3.3- KOORDINAZIOA OSASUN ZERBITZUEKIN

a. Urgentziatzko edo lehentasunezko genero indarkeria kasuetan

- Emakumeak lesioak baldin baditu, hauek txikiak izan arren, edo eta agerikoak ez direnaren susmoa egonda ere, biktimari dagokion osasun zerbitzura lagunduko zaio (Irurako anbulategia edo Tolosako Asunzion klinika). Aldez aurretik, bertara deitu beharko da bidean dagoen kasua dagokion arretaz eman dadin.

b. Gertatu berri diren eta gertatu berri ez diren sexu eraso kasuetan

- Kasu hauetan, emakumeak salaketa jarri aurretik, lehendabiziko koordinazioa Tolosako Asunzion klinikarekin egingo da. Ahalik eta azkarren ospitaleko Larrialdietara deituko da, dagokion osasun protokoloa martxan jarri eta berehala epaitegira deitu dezaten.
- Kasu guztietan, emakumeari ospitalera lagunduko zaio.

III.4.- OSASUN ZERBITZUAK

- Osasun langileek arreta emateko orduan kontuan izan beharko dute indarrean duten PROTOKOLOA.
- Nahiz eta protokoloaren koordinaziorako aurreikusten den egitura Koordinaziorako Mahai Teknikoa izan, parte hartzen duen edozein erakundek ez ohiko bilera egiteko deialdia egin dezake, urgentziatzko eta garrantzizkoa kontsideratzen den erabakiren bat hartzeko.
- Osasun zerbitzuen kasuan, esku hartze sozialen eta polizialen inguruko informazioa oso erabilgarria izan daiteke, lehen arretako unitate, espezialitate edota larrialdietako zerbitzuek prozedura, laguntza eta neurri berriak eskaintzeko.
- Osasun arloko langileen esku hartze egokia bideratzeko indarkeriaren biktima diren emakumeen eskura egon daitezken baliabideen inguruko informazioa izan beharko dute (gidak, telefonoak, heziketa materiala...)

LEHEN MAILAKO ARRETA GENERO INDARKERIA KASUETAN:

- Emakumeak lesio larriak baldin baditu eta esku hartze espezializatua behar baldin badu, anbulantziari deitu eta Tolosako Asunzion klinikara eramango zaio.
- Emakumeak lesioak baldin baditu eta hauek genero indarkeriaren ondorioz direla badio, neurri profilaktikoak eman eta lesio partea beteko da, ondoren, osasun zentroko zuendarizatik Tolosako epaitegira bidaltzeko.
- Osasun arloko langileek emakume bat genero indarkeriaren biktima izan daitekenaren susmoa dutenean, genero indarkeria gertatu ote den baieztatu edo baztertu beharko dute. Horregatik, ezinbesteko da genero indarkeria jasan duela pentsarazten duten zantzuak eta sintomak zein izan daitezken jakitea, eta kontsultan adi egoeta kasu hauek identifikatu ahal izateko.
- Biktimak ez baditu gertaerak salatu nahi edo eta babes neurriak eskatu, hartatu duten profesionalak epsiategiari gertatutakoaren berri ematea behartuta daudela adierazi beharko zaio.
- Pediatria zerbitzuak adingabeei egindako abusuak edo indarkeria zantzuak antzematen baditu, behala ofiziozko salaketa jarriko du.
- Kasu guztietan, lehen esku hartzea amaitu ondoren, hurrengo urratsa Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea izango da, beti ere biktima den emakumearen baimenarekin, erabateko arreta bermatze aldera.

LARRIALDI ZERBITZUETAN NOLA JOKATU GENERO INDARKERIA KASUEN AURREAN:

- Indarkeria kasua ondo aztertu ondoren, biktimak lesio fisiko edo psikiko larriak baldin baditu, anbulantzia deitu eta Tolosako Asunzion klinikara eramango zaio.
- Lesioen partea bete ondoren biktimari hau irakurri eta Osakidetzako Protokoloa aintzat hartuta Tolosako Epaitegira behar den dokumentazioa bidaliko da.
- Beharrezkoa baldin bada Ertzaintzari deituko zaio biktimari akonpainamendua egin eta salaketa jartzeko prozedura ahalbidetzeko.
- Biktimaren nahia gertaerak ez salatzea baldin bada, Osasun Zentrotik Gizarte Zerbitzuetara deituko da. Gizarte Zerbitzuen ordutegitik kanpo, Ertzaintzari deituko zaio, kudeaketak egin eta emakumea Gizarte Larrialdietarako Foru Baliabideetara bideratuz.
- Emakumearen segurtasuna eta osasun fisikoa arriskuan dagoela kontsideratzen bada, Ertzaintzari deituko zaio.

SEXU ERASOA EDO ABUSUA GERTATU BERRI DENEAN NOLA JOKATU (72 ordu baino gutxiago)

- Biktima ahal den azkarren Tolosako Asunzion klinikara eraman beharko da, dagokion azterketa ginekologikoa egin eta behar diren laginak atera ahal izateko. Emakumearen akonpainamendua Gizarte langileak, Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egin beharko du.
- Ospitaleko larrialdi zerbitzutik Ertzaintzara edo Epaitegira deituko da, bertakoek Fiskaltzari deitu beharko diote ospitalera dagokion auzi medikua bidalieta beharrezko gestioak egin ditzan.

SEXU ERASOA EDO ABUSUA GERTATU BERRIA EZ DENEAN NOLA JOKATU (72 ordu baino gehiago)

- Kasu hauetan izaten diren kalte eta lesio fisiko eta psikikoak arintzen lagunduko zaio emakumeari, dagokion jarduera terapeutikoa martxan jarritz.
- Laguntza emateko ekintzak burutu eta behar den tratamendua martxan jarri ondoren, Osasun Protokoloan dagoen neurri profilaktioen eta lesio partearen eredia beteko da.
- Era berean, beti ere emakumearen baimenarekin, Ospitaleko erreferentziatzko medikuari edo eta erizainari telefonoz deituko zaie euren pazientea genero indarkeriaren biktima dela adieraziz,

hauek jarraipen egokia egin dezaten. Gainera, eta emakumearen baimenarekin ere, Gizarte Zerbitzuei deituko zaie hauek kasuaren jarraipena egin dezaten.

IV. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Protokoloa hau sinatzen duten erakundeen arteko koordinazioa eta bertan jasotako edukien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, koordinaziorako talde hauek egongo dira:

- KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA
- KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOA

KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA (Hiru hilabetero bilduko da)

- Alkatea
- Gizarte Politiketako zinegotzia
- Berdintasun zinegotzia
- Gizarte langilea
- Udaltzain nagusia

KOORDINAZIO MAHAI TEKNIKOA (Sei hilabetero bilduko da)

- Koordinazio orokorrerako mahaiaren partaideak
- Oriako Ertzain Etxea
- Osasun zerbitzuak

IV.1.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIA

Indarkeria jasaten duten emakumeenganako erakundeen erantzunak arina, eraginkorra eta koordinatua izan behar du. Mahaiaren ardura orokorrak honakoak izango dira:

- Protokoloaren inplementazioa eta ebaluazioa.
- Protokoloaren koordinaziorako mahai teknikoaren deialdiak egitea.

IV.1.2.- KOORDINAZIO OROKORRERAKO MAHAIAREN EGINKIZUNAK

- Azken hilabeteetan Iruran arreta jaso duten emakumeen inguruko **datu bilketa egin eta irakurketa konpartitua** egingo da.
- **Baliabideen diseinua/jarraipena ere egingo da**, kasu bakoitzean eskaintzen diren baliabideak zeintzuk diren aztertu, eta beharrezkoa denean, Udalak beste baliabide batzuk eskaini ditzakeen erabaki ahal izateko.
- **Herri mailan erantzun publikoa** behar duen gertakari bat egon ezkerro ez-ohiko bilera deituko da, mahai honi Irurako emakume taldeko ordezkariak gehituko zaizkiolarik.
- Koordinazio orokorrerako mahaia hiru hilabetero bilduko da.

IV.2.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOA

IV.2.1.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAI TEKNIKOAREN EGINKIZUNAK

- Protokoloak jasotzen dituen baliabideak, legeak, arauak etab... eguneratzea.
- Indarkeria kasuen kudeaketa eta koordinazioa aztertu eta ebaluatu.

- Osatu gabe geratu diren prozesuen analisisia egin.
- Indarkeria kasuetan ematen den arreta baloratu, beharrezkoak diren aldaketak eta egokitzapenak proposatu.
- Egon daitezken zalantza eta eragozpenen aurrean dauden kezkek konpartitu eta hauei irtenbide batertuak bilatzea.
- Protokoloan esku hartzen dituen eragile desberdinen formazio beharrak detektatu eta proposatu.

V. IRURAKO UDALAREN ADIERAZPENAK ETA EKINTZA PUBLIKOAK

Irurako udalaren eta bertako agintari eskudunen eginkizuna da emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako kultura sortzeko jarduera egokiak burutzea eta gure gizarteko egiturazko indarkeria matxistari aurre egitea. Horretarako, udalerriko indarkeria-egoera desberdinei erantzun egokia eta proportzionatua ematen saiatuko da.

Jarraitu beharreko urratsak:

➤ **SEXU ASKATASUNAREN AURKAKO ERASOETAN EDO GENERO INDARKERIA KASUETAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:**

1/ Genero-indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimei zuzenean elkartasuna eta babesa emango zaie, kasuaren berri izan denean, salaketa jarri edo ez. Beharrezko babesa emango da eta agintarien aldetik biktimen eskaerei erantzuteko interesa dagoela jakinaraziko zaie; beti ere emakumeen eta familiaren pribatutasuna gordez.

2/ Irurako udalak publikoki gaitzetsiko ditu sexu-erasoen eta/edo genero-indarkeriaren kasuak. Horien aurka antolatzen diren edo babesa emateko ekitaldietara deituko ditu udalerriko herritarrak, betiere emakumeen eta familien pribatutasuna errespetatuz. Udalerriko indarkeria matxistaren kasuak gaitzesteko deialdia emakumeen elkarteek edo besteren batek egin badu, udalak deialdiarekin bat egingo du.

3/ Udaleko agintariak indarkeria matxistaren aurkako adierazpen publiko bat egingo dute, azaroaren 25eko sentsibilizazio-jardunaldien testuinguruan. Emakumeen elkarteek edo besteren batek antolatzen dituen ekitaldietan, udalak bat egingo du deialdiarekin.

➤ **GENERO INDARKERIAREN EDO SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO BESTE EDOZEIN DELITUREN ONDORIOZKO HERIOTZEN KASUAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:**

1/ Irurako alkateak bozeramaileen batzarra deituko du, eta ondoren osoko bilkura, gaitzespena adierazteko erakunde-adierazpena oneste-aldera; halaber, herritarrak deituko ditu

egoki irizten dituen ekitaldietan parte hartzera. Deialdia emakumeen elkarteek edo besteren batek egingo balu, udalak bat egingo du deialdiarekin.

2/ Irurako udala biktimaren familiarekin harremanetan jarriko da beharrezko laguntza eskaintzeko, bereziki, hildakoaren seme-alabei dagokienez. Laguntza hau eskainiko da: laguntza legala; laguntza psikologikoa; laguntza ekonomikoa, beharrekoa bada; gorpua aberriratu behar bada, gorpua lekualdatzeko laguntza; gainerako senitartekoei informazioa ematea, bai estatuan bai kanpoan bizi direnei, eta abar.

3/ Udalak, egoki iritziz gero herri-akzioa erabiliko du.

Aurreko bi kasuetan:

Udalak komunikabideekin hitz egin behar duen pertsonaren ardura finkatuko du, informazio zehatza eta egokia ematen dela bereziki zainduz. Hala, komunikabide horien aurrean erantzuteko jarraibide batzuk ezarriko dira, jasotzen edo ematen den informazioa Berdintasun Sailarekin eta Gizarte-Zerbitzuekin koordinatuta. Gertatutakoa egiaztatu arte komunikabideen presiopean erantzun inprobisatuak ematea saihestuko da.

VI. ERANSKINAK

VI.1.- TOKIKO ERAGILEEN ZERRENDA

Atal honetan Iruran genero indarkeriari aurre egiteko prozesuan eskura dauden baliabide nagusien zerrenda jasotzen da.

VI.1.1.- IRURAKO UDALA

GIZARTE

HELBIDEA	SAN MIGEL PLAZA 1
TELEFONO ZKIA	943 69 13 33
E-POSTA	gizarte@irura.eus

BERDINTASUNA

HELBIDEA	PELLO ARRESE 1
TELEFONO ZKIA	943 69 26 74
E-POSTA	berdintasuna@irura.eus

GIZARTE

HELBIDEA	SAN MIGEL PLAZA 1
TELEFONO ZKIA	610 420 110
E-POSTA	zerbitzuak@irura.eus

ANIZTASUNA

HELBIDEA	Tolosaldea Garatzen LEHIBERRI ZENTROA, Appata 1 Appaterreka Industrigunea
TELEFONO ZKIA	943 65 45 01
E-POSTA	migrazioa@tolosaldea.eus

VI.1.2.- IRURAKO ERAGILEAK
IRURA MORETUZ

E-POSTA	iruramoretuz@gmail.com
----------------	------------------------

IRURAKO

HELBIDEA	ZILLAR KALEA 4
TELEFONO ZKIA	943 69 43 74
E-POSTA	ikastola@irura.eus

VI.1.3.- IRURAKO OSASUNGINTZA
IRURAKO

HELBIDEA	PELLO ARRESE 1
TELEFONO ZKIA	943 44 49 33

TOLOSAKO OSASUN ETXEA

HELBIDEA	GERNIKAKO ARBOLAREN LORATEGIA Z/G
TELEFONO ZKIA	943 00 68 00
E-POSTA	tolosa@osakidetza.eus

ASUNZION KLINIKA

HELBIDEA	IZASKUNGO ALDAPA Z/G
TELEFONO ZKIA	943 69 70 00
E-POSTA	belate_kontsultak@clincadelaasuncion.com

VI.1.4.- ERREFERENTZIAZKO ERTZAIN ETXEA ETA EPAITEGIA
ORIAKO ERTZAIN ETXEA

HELBIDEA	SANTA KLARA KALEA 2
TELEFONO ZKIA	943 53 88 20
E-POSTA	vdyg_oria@ertzaintza.eus

TOLOSAKO EPAITEGIA

HELBIDEA	SAN JUAN KALEA 3
TELEFONO ZKIA	943 00 26 05

IV.1.5.- GIPUZKOAKO ETA ERKIDEGOKO BALIABIDEAK

SOS DEIAK

112

Larrialdi zerbitzuak aktibatzen ditu
(poliziala, osasun zerbitzuak etab...)

GIPUZKOAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA

943 224 411 /112

24 orduko arreta 365 egunetan
Tratu txarren eta sexu indarkeria bizi
duten emakumeei berehalako erantzunak
emateko.

SATEVI

Genero indarkeriaren biktimei
laguntzeko telefono bidezko zerbitzu
espezializatua

900 840 111

Tratu txarren eta sexu indarkeriaren
biktimei informazio eta aholkularitza
ematen dizkie. Euskal Autonomia
Erkidegoko zerbitzua da, doakoa.
Eguneko 24 orduetan dago martxan,
hainbat hizkuntzatan eta entzumen
arazoak dituzten pertsonentzat egokitua.

VI.2.- BALIABIDEEN ZERRENDA

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA⁶ beharko du:

- Larrialdietarako laguntza (Irurako Udala):
 - Beste laguntzak martxan jarri bitartean edo behar espezifikoaren aurrean laguntza emateko baliabidea. Kasu bakoitzaren eskaera aztertu eta balorazioa egiten da.
 - Non eskatu: Gizarte zerbitzuak (Irurako Udala).
- Diru_sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI):
 - Eskubidea izateko urtebetez erroldatua egon behar da udalerrian.
 - Non eskatu: Lanbide (Euskal Enplegu zerbitzua).
- Ordainketa bakarra (Eusko Jaurlaritza):
 - Eskubidea izateko 6 hilabetez erroldatua egon behar da udalerrian.
 - Lehenengo hilabeteetan emakumeak bere oinarrizko beharrei (etxebizitza...) aurre egin ahal izateko diru-kopuru bat da.
 - Non eskatu: Udaleko gizarte-zerbitzuak, Lanbide (Euskal Enplegu zerbitzua) eta Eusko Jaurlaritzan.
- Inerziorako Errenta Aktiboa (RAI):
 - Udalerrian erroldatuta 6 hilabete baino gutxiago daramatzatenentzat.
 - Non eskatu: SEPE (Servicio Público de Empleo Estatal, lehen INEM).

EGOITZA BALIABIDEAK

- ETXEBIDE (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua)
 - Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA beharko du.
 - Babes ofizialeko etxebizitza zuzenean lortzeko aukera dago, edota etxebizitza lortzeko aukera gehiago izatearena
- ALOKABIDE (Eusko Jaurlaritza, Babestutako Alokairu Zerbitzua)
 - Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA beharko du.
 - Babes ofizialeko etxebizitza zuzenean lortzeko aukera dago, edota etxebizitza lortzeko aukera gehiago izatearena

BESTELAKO BALIABIDEAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

- BANAKAKO LAGUNTZA PSIKOSOSIALA
 - Eskaera egiteko EZ DA SALAKETARIK BEHAR, nahikoa izango da gizarte langileak gertakarien harira erredaktatutako gizarte txostena. Aldundiko batzordeak kasuaren balorazioa egiten du, onartu edo ez onartu erabakitzeko.
 - Laguntza eraso jaso duten emakume eta bere seme-alabei zuzenduta dago, baita erasotuei ere.

⁶ Urruntze agindua edo delitu zantzuak daudela adierazten duen fiskaltzaren informea

- Eskaintzen diren saioak:
 - Kasuaren balorazioa egiteko 3 saio.
 - Beharra dagoela aitortu ezker, 18 saio.
 - Aurreko saioak bukatuta beharrak jarraitzen duela erabaki ezker, beste 9 saio.
- **ARRETA PSIKOLOGIKO BANAKAKOA ETA TALDEKAKOA**
 - Zerbitzu hau indarkeria matxista jasan duten emakumeei, bere ardurapekoei eta erasotzaileari berari ere zuzentzen zaio.
 - Ez du axola ze eremutan eman den indarkeria matxista hori.
 - Helburua, beharizan psikoemozionalak asetzeari litzateke, ikuspegi feminista batetik eta halako emakumeak ahalduzkoen aldeko ikuspegi batetik begiratu.
- **AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA ARRETA SOZIO JURIDIKOA**
 - Eskara egiteko **EZ DA SALAKETARIK BEHAR**, nahikoa izango da gizarte langileak gertakarien harira erredaktatutako gizarte txostena.
 - Lege informazioa eta aholkularitza eskaintzen da esparru juridikoko baliabideei eta familia-zuzenbideari buruz.
 - 3 saio.
- **ARRETA PSIKOSOSIAL ANBULATORIOA**
 - Indarkeria matxista jasan duten emakumeei dago zuzendua, egoitza-baliabide batean sartu nahi ez dutenak edo haietako batean egonaldia amaitu berri dutenak, eta beren beharrezkoen egokitutako jarraipen ambulatorioa behar dutenak.
 - Diziplina arteko esku-hartze mota bat da, eta esku-hartze ambulatorioko bi talde ditu:
 - Hainbat arrazoiengatik harrera zentro batean bizi ez diren emakumeentzako segurtasun, kontzientziario eta akonpainamendu programa (6 hilabeteko iraupena, salbuespenekin).
 - Egonaldi laburreko edo ertaineko zentroan bere egonaldia amaitu ondoren, banako edo familiako arreta-planaren jarraipena behar duten emakumeentzako jarraipen programa, jarrai dezaten ahalduzkoen beren ibilbidearekin (6 hilabeteko iraupena, salbuespenekin).

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: ZENTROAK

- **BEREHALAKO HARRERAKO EDO EGONALDI LABURREKO ZENTROA (URRATS)**
 - Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta haren ardurapekoei zuzendua.
 - Eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan berehalakotasunez jasotzeko modukoa.
 - Bertan kasuaren balorazioa egin eta baliabiderik egokiena bideratzea proposatzen da.
- **EGONALDI ERTAINEKO HARRERA ZENTROA (BIDEAN)**
 - Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta haren ardurapekoei zuzendua.
 - Helburua babeseko eta aldi baterako egonaldiko eskaerei erantzutea.
 - Esku-hartze espezializatu integrala.
- **AUTONOMIA PISUAK**
 - Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta hauen elkarbizitza unitateari zuzendua.
 - Babes zentro batetik igaro ondoren egonaldi laburreko egonaldi bat behar dutenak, ez dutelako berehalako etxerik, indarkeria matxistaren egoera batetik suspertu eta hura gainditu ahal izateko.
 - Beti ere intentsitate handiko babes neurriak behar ez badira.

VI.2.- DATU BILKETARAKO FITXAK

INDARKERIA KASUEN DATUAK JASOTZEKO EREDUA			
KOORDINAZIORAKO DATUAK			
Identifikazio Kodea:		Harrera data:	
Erakundea:		Profesionala:	
JATORRIZKO ERAKUNDEA	Oriako Ertzain Etxea		
	Epaitegia		
	Irurako Anbulategia		
	Tolosako Osasun Zentroa		
	Asunzion Klinika		
	Donostiako Ospitalea		
	Irurako Gizarte Zerbitzuak		
	Larrialdietarako Gizarte Zerbitzuak (GFO)		
	Irurako Udaltzaingoa		
	Irurako Ikastola		
Irura Moretuz			
Beste bat: Zehaztu			
EMAKUMEAREN DATU PERTSONALAK			
Jaioterria			
Noiztik dago Iruran erroldatuta			
EGOERA ZIBILA			
Ezkondua		Banantzeko edo dibortziazeko prozesuan	
Ezkongabea		Erregistratutako bikote harreman adostua	
Dibortziatua		Erregistratu gabeko bikote harreman adostua	
Banandua (izatez)		Alarguna	
Banandua (legez)		Beste bat	
EGOERA EKONOMIKOA			
Langilea		Pentsionduna	
Langabetua		Beste bat	
ETXEBIZITZARI LOTUTAKO EGOERA			
Etxebizitzarik gabe		Familiaren etxebizitza	
Norbere etxearekin		Babes edo etxe soziala	
Etxebizitza alokatua		Beste bat	
Etxebizitza erabiltzeko baimena			
DIRU SARRERAK			
Indibidualak		Guztira (bikotearena)	
EZINTASUNA			
Fisikoa		Psikikoa	
Menpekotasun Maila		Elbarritasun Maila	

ARDURAPEAN DITUEN SEME- ALABAK		
Kopurua:		
Jaiotze data:		
Sexua	Femeninoa	
	Maskulinoa	
	Beste bat	
Jaiotze data:		
Sexua	Femeninoa	
	Maskulinoa	
	Beste bat	
Jaiotze data:		
Sexua	Femeninoa	
	Maskulinoa	
	Beste bat	
BERE ARDURAPEAN DITUEN BESTE BATZUK		
Kopurua:		
Jaiotze data:		
Mendekotasun Mota	Fisikoa	
	Ekonomikoa	
	Soziala	
	Burukoa edo Kognitiboa	
Kopurua:		
Jaiotze data:		
Mendekotasun Mota	Fisikoa	
	Ekonomikoa	
	Soziala	
	Burukoa edo Kognitiboa	
Kopurua:		
Jaiotze data:		
Mendekotasun Mota	Fisikoa	
	Ekonomikoa	
	Soziala	
	Burukoa edo Kognitiboa	

VI.3.- DATUAK PARTEKATZEKO BAIMEN ESKAERA

Nik, andreak,
NANA / Pasaporte / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria:

.....

BAIMEN honen bidez, honako hau idatziz jasota uzten dut:

.....(e)ko Udaleko langileek jakinarazi didate emandako datu pertsonalak..... TOKIKO PROTOKOLOA izeneko fitxategi batean sartuko direla,

.....(e)ko Udalare titulartasuneko dena. Horren helburua da neri eta nere mende dauden pertsonen ahalik eta arretarik osoena eskaintzea beste zerbitzuekin koordinatuz.

Era berean, hauxe azaldu didate:

Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiteko laguntza eskainiko duela, eta aldi berean estatistikak eta azterlanak egiteko erabili ahal izango dela. Baimen hau ez emateko eskubide osoa edo partziala dudala eta ez-emate horrek izan ditzakeen ondorioak.

.....(e)ko Udalean datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horren aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala.

Horrekin guztiarekin bat etorritik, askatasun osoz nire baimena ematen dut Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik.

Lekua:

Eguna:

Sinadura:

Nire alabak 14 urte baino gutxiago ditu, eta ama, aita edo tutorea naizen aldetik, datuak emateko nire baimena ematen dut.

Nik, andreak, jaunak
NAN / Pasaporte / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria:

.....

akta honen bidez, honako hau jakinarazten dut:

- Aurkeztutako datu pertsonalak, argazkiak eta/edo bideoak polizia-kidego desberdinen esku jarri ahal izango dira, hala behar izanez gero, eskusiboki polizia-esparruaren barruan erabiliak izan daitezten eta ezar daitezkeen babes-neurriak burutu ahal izateko.

Era berean, hauxe azaldu didate:

Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiteko laguntza eskainiko duela, eta aldi berean estatistikak eta azterlanak egiteko erabili ahal izango dela. Baimen hau ez emateko eskubide osoa edo partziala dudala eta ez-emate horrek izan ditzakeen ondorioak.

Eta baimena ematen dut:

- Beharrezko informazioa honako hauen esku jartzeko:

Gizarte-langilea

Familia-medikua

Pediatra

Eskolako zuzendaria

Eguna:

Sinadura:

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

7.- MOZIOA. EAJ/PNV TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “2022KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO ADIERAZPENA”.

Ana Leunda, EAJ-PNV taldeko bozeramaileak hartu du hitza eta mozioa irakurri du:

Behin betikoa 2022/11/22	Definitiva 2022/11/22
<p>2022KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA</p> <p>Adostasuna, etorkizunaren giltzarri</p> <p>Euskararen Legeak berrogei urte: adostasunaren eraginkortasuna</p>	<p>DECLARACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2022</p> <p>El acuerdo, clave de futuro</p> <p>Cuadragésimo aniversario de la Ley del Euskera: la eficacia del acuerdo</p>
<p>Autogobernuaren eskutik egin du euskarak milaka urteko bere historian ezagutu aurrerabiderik sendoena, herritarron ezinbesteko kontzientzia eta ekimena oinarri hartuta.</p>	<p>El euskera ha realizado, de la mano del autogobierno, el avance más sólido de su historia milenaria, sobre la imprescindible base de la conciencia e iniciativa de la ciudadanía vasca.</p>
<p>Gaur, Euskararen Nazioarteko Egunean hain zuzen ere, datu soziolinguistiko oinarritzen den baieztapen hori lau haizetara zabaltzeko baldin bagaude, zintotasunez aitortu behar dugu euskaldunon historian tokia duen ekimen bat aurrerabide horren iturburuan.</p>	<p>Si hoy, en el Día Internacional del Euskera, nos encontramos en disposición de difundir a los cuatro vientos tal afirmación, avalada por rigurosos datos sociolingüísticos, debemos reconocer con sinceridad que en el origen de tal avance se sitúa una iniciativa que ocupa un lugar de honor en la historia del euskera y de las personas euskaldunes.</p>
<p>Izan ere, aurten berrogei urte bete ditu Euskararen Erabilera Normalizatze Oinarrizko Legeak 1982an onartuenez Euskararen Legetzat dugunak.</p>	<p>En efecto, este año celebramos el cuadragésimo aniversario de la Ley Básica de Normalización del Euskera, que desde su aprobación en 1982 conocemos como Ley del Euskera.</p>
<p>Ugari biltzen ditu horrek ospakizunerako arau nagusi hori baitute oinarri euskarak alor guztietan dituen urratsek. Hartan dituzte sustraiak eta ezinbesteko babesa irakaskuntzaren, helduen euskalduntzearen, zientifikoaren, lan munduaren eta gizarte erabileraren besteak beste, hartu diren neurriek. Hartan du errealitatera arautegiaren lege-erakinak.</p>	<p>Son múltiples las razones para la celebración que este aniversario concita, puesto que se trata de la norma principal que fundamenta los pasos que el euskera ha dado en todos los ámbitos. En ella hallan sus raíces y hallan el imprescindible respaldo legal las medidas adoptadas en ámbitos como, entre otros, la administración, la enseñanza, los medios de comunicación, la euskaldunización de personas adultas, el ámbito científico, el mundo laboral y el uso social. Sobre ella se cimienta el edificio legal de la normativa que nos ha traído a la realidad actual.</p>
<p>Baina Euskararen Legeari zor dioguna agerian jartzerakoan,</p>	<p>Pero a la hora de poner de manifiesto nuestra deuda para con la Ley del Euskera, resulta ineludible</p>



ezinbestez nabarmendu beharko pongo de relieve la característica
dugu arau horri benetako indarra eta fundamental que ha dotado a dicha
iraunkortasuna eman dizkion norma de verdadera fuerza y
ezaugarria: adostasun zabal sendo sostenibilidad: se trata de una ley
baten gainean eraikitako legea da, erigida sobre un amplio acuerdo, del
eta hortik dator, besteak beste, que proviene, entre otras cosas, su
iraunkortasuna. eficacia.

El euskera debe mucho al
acuerdo, y nada a la falta de acuerdo.
Asko zor dio euskarak
Porque el acuerdo es clave para el
adostasunari, eta deus ere adostasun futuro del euskera; la falta de acuerdo
ezari. Adostasuna baitu euskararen sería, por el contrario, una catástrofe.
etorkizunak giltzarri; hondamendi
luke euskarak, ordea, adostasun eza.

Y el acuerdo se construye sobre
la base de la voluntad. Porque se
Eta adostasunak borondatea du la precisa voluntad, y por supuesto
oinarri ezinbesteko. Borondatea, eta generosidad, para acordar
eskuzabaltasuna noski, behar baitira diagnósticos y avances entre quienes
beru-bihotzetan abiaburu eta albergamos diferentes puntos de
helmuğa ezberdinak ditugunon partida y metas en nuestras mentes y
artean diagnosiak eta corazones. No es, en absoluto, una
aurrerabiderako urratsak adostea. Ez tarea sencilla, pero sí imprescindible
da inolara ere eginkizun erraza; bai, para el euskera. El acuerdo efectivo
ordea, euskararentzat ezinbestekoa. exige equilibrar valentía y prudencia,
Ausardia eta zuhurtzia oreaktea eskatzen du adostasun eraginkorrak, porque toda medida en exceso
hilda jaiotzen baita neurri bizkorregi acelerada o morosa nace muerta. El
zein geldoegi oro. Euskarak bai euskera sabe aprovechar las
baitaki aldeko egokierak baliatzen, coyunturas favorables, y también
eta badaki, era berean, behar denean esperar una mejor ocasión cuando
aukera hobearen zain egoten; baina hacerlo es necesario; pero no por ello
ez du, neurri berean, denbora puede permitirse perder el tiempo en
inoizko larretan galtzerik. expectativas infructuosas.

Porque para el euskera es tan
imprescindible no dejar a nadie atrás
Neurri berean baitu euskarak como avanzar con un paso ágil pero
ezinbestekoa inor ez atzean uztea eta firme.
aurrera urrats bizi bezain sendoz
egitea.

Tales son las enseñanzas que
dimanan de la propia Ley del
Euskararen Legeak berak eta Euskera y sus cuarenta años de
haren berrogei urteko garapenak desarrollo. Y en verdad debemos
erakutsi digute hori guztia. Eta zinez continuar profundizando en ellas. En
dira horiek aurrerantzean mamitzen beneficio del euskera. En favor de las
jarraitu behar ditugun ikasgaiak personas vascohablantes y del
Euskararen mesedetan. Euskal conjunto de la ciudadanía vasca. Por
hiztunon eta euskal herritar guztion la cohesión de la sociedad vasca.
onurarako. Euskal gizartearen Porque el euskera da el sentido al
kohesioaren alde. Euskal Herri nombre de Euskal Herria.
izenari izana ematen diolako
euskarak.

Las líneas del acuerdo se
proyectaron en múltiples direcciones
en la Ley del Euskera, y debemos
perseverar en esa vía en lo sucesivo.
Norabide ugaritan proiektatu Porque en el acuerdo entre diferentes
ziren Euskararen Legean hallaremos siempre el punto crítico,
adostasunaren ildoak, eta bide horretatik jarraitu behar dugu
horretatik jarraitu behar dugu la clave de bóveda, del compromiso
aurrerantzean ere. Desberdinen que nos permita seguir avanzando en
arteko adostasunean bilatuko baitugu conjunto. Al margen del acuerdo,
beti elkarrekin aurrera egiten solo nos espera la discordia social,
jarraitzea ahalbidetzen duen letal para el euskera.
konpromisoaren puntu kritikoa.

Es imprescindible extraer



giltzarria. Hortik kanpora, euskarak conclusiones del camino recorrido, y galbide lukeen liskar soziala baizik disponemos ahora de una oportunidad única para comprobar la utilidad práctica del acuerdo: estamos viviendo un nuevo Euskaraldia.

Atzeak erakutsi ohi duenez aurrea nola dantzatu behar den, aukera paregabera dugu esku-eskura adostasunaren baliagarritasun satisfactorio, el grado de acuerdo praktikoa egiaztatzeko, Euskaraldia social y político que concita bizitzen ari baikara aurten berriz ere Euskaraldia. Pero ese acuerdo no gure inguru osoan. solo es satisfactorio y llamativo, sino también útil y orientador a la hora de

Izan ere, deigarria da, eta zinez poztarria, Euskaraldiak biltzen duen adostasun sozial eta politikoaren neurria. Baina poztarri eta deigarri ez ezik, baliagarri eta bide-erakuslea ere bada adostasun hori, euskararen benetako ardura praktikoa bere hartzen duen gizarte cleaniztun bat eraikitzerakoan.

Hori da Euskararen Nazioarteko Egunean aurten aldarrikatu nahi dugunaren mamia: Euskararen Legeak erakusten digunez, hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen aldeko atxikimendua bilatzen duten ekimenetan frogatu da zein garrantzitsua den adostasunez jokatzea. Euskaraldiak, adibidez, denon begien bistan agerian jartzen duenez, adostasuna du euskarak aurrerabiderako lema, erabileraren aldeko gizartearen eta norbanakoaren konpromiso tinkoarekin batera, ekimen publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarekin batera, elkarren onspen zintzoarekin batera.

Esa es la esencia de lo que queremos proclamar en esta edición del Día Internacional del Euskera: la Ley del Euskera nos enseña que, en las iniciativas que buscan el cambio de hábitos lingüísticos y la adhesión a favor del euskera se ha demostrado la importancia del consenso. Euskaraldia, por ejemplo, pone de manifiesto que, el timón para el progreso del euskera es el acuerdo, junto con el compromiso firme de la sociedad y de todos y cada uno de nosotros y nosotras por el uso del euskera, junto con la colaboración entre la iniciativa pública y la privada, junto con la mutua y leal aceptación.

Porque el euskera, lejos de separarnos, nos une.

Euskarak batzen gaituelako, ez inola ere banatzen.

En el acuerdo.

Adostasunean.

Noelia Zinegotziak adierazi du ez daudela idatziaren aurka baina ez duela konpromisorik biltzen eta hori dela eta abstenitu egingo dela EHBILDU taldea.

BOZKETA.- EH BILDU TALDEKO, BOST ABSTENTZIO, ETA EAJ/PNV TALDEKO LAU ALDEKO BOZKA.

8.- MOZIOA. EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “EUSKARAREN EGU- NERAKO ADIERAZPENA”.

Noelia Lataburu zinegotziak mozioa irakurri du:

ARNASA ETA BIDEA ZABALTZEN

Udalerri euskaldunen adierazpen bateratua

Berriki ezagutu ditugu udalerri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udalerri euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolanhiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udalerri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen dago, kuantitatiboki, euskararen errealtatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udalerri euskaldunek. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberritzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

Atzo amaitu zen Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikoari eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerri euskaldunei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerri bizi eusteko. Baina baita udalerri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturean edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten, Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulerrarazteko mugarra izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorrak diren udalerri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan.

**2022ko abenduaren 3an,
Euskararen Egunean.**

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

9.- GALDE-ERREGUAK.

Gorka Murua Alkateak adierazi du aurreko batzarrean Alkate dekretuan zeuden idazketa-akatsak zuzenduak izan direla 2022/268an.

Ana Leunda zinegotziak adierazi du 2022/288 Alkate dekretuan notaritzako segregazio eta permuta gastu bat dagoela baina ez duela azalpen gehiago ematen, eta zeri buruzkoa den galdetu du.

Alkateak adierazi du, Ibaiondo 20 gunean egindako segregazio eta permutarena dela.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.